

# HAITZULOETAKO ARTE PALEOLITIKOA EUSKAL HERRIAN

## EL ARTE RUPESTRE PALEOLÍTICO EN EL PAÍS VASCO

Jesús Altuna · Koro Mariezkurrena



# HAITZULOETAKO ARTE PALEOLITIKOA EUSKAL HERRIAN

## EL ARTE RUPESTRE PALEOLÍTICO EN EL PAÍS VASCO

Jesús Altuna · Koro Mariezkurrena



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
*Kultura Ondarearen Zuzendaritza*



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
*Dirección de Patrimonio Cultural*

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia / Edición:  
1.a, 2014ko abendua / 1.ª, diciembre 2014

Ale Kopurua / Tirada:  
3.000 ejemplares

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.  
Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea / Edita:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Azalaleko irudia / Imagen de portada:  
Ekain leitzeko irudi panel handia.  
Gran panel de figuras de Ekain.

Itzulpena / Traducción:  
IZO, Itzulpen Zerbitzu Ofiziala  
Fotokonposaketa / Fotocomposición:  
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Inprimaketa / impresión:  
Graficas Lizarra, S.L.

ISBN: 978-84-457-3360-8

L.G. / D.L.: VI 878-2014

Sarrera / Introducción .....	7
Klima / El marco climático .....	12
<b>Haitzuloetako arte paleolitikoa ageri duten aztarnategiak Euskal Herrian</b>	
Cuevas con arte rupestre paleolítico en el País Vasco .....	15
• <b>Venta Laperra</b> (Karrantza Harana / Valle de Carranza, Bizkaia) .....	18
• <b>El Polvorín</b> (Karrantza Harana / Valle de Carranza, Bizkaia) .....	21
• <b>El Rincón</b> (Karrantza Harana / Valle de Carranza, Bizkaia) .....	22
• <b>Areatza</b> (Galdames, Bizkaia) .....	24
• <b>Antoliña</b> (Gautegiz Arteaga, Bizkaia) .....	28
• <b>Santimamiñe</b> (Kortezubi, Bizkaia) .....	28
• <b>Lumentxa</b> (Lekeitio, Bizkaia) .....	36
• <b>Askondo</b> (Mañaria, Bizkaia) .....	38
• <b>Praileaitz</b> (Deba, Gipuzkoa) .....	39
• <b>Ekain</b> (Deba, Gipuzkoa) .....	40
• <b>Astigarraga</b> (Deba, Gipuzkoa) .....	58
• <b>Altxerri</b> (Aia, Gipuzkoa) .....	59
• <b>Aitzbitarte IV</b> (Errenteria, Gipuzkoa) .....	77
<b>Bibliografia / Bibliografía</b> .....	79



Haitzuloetako artea Goi Paleolitoarekin loturik ageri zaigu, hau da, duela 40.000 urte inguru mendebaldeko Europa jendeztatzen hasi zen egungo gizaki motarekin. Gure orubea ordura arte okupatu zuten gizakiek, Neanderthalgo gizakiek hain zuzen ere, lekukotasun ugari utzi zituzten hala leizeetan nola haize zabaleko kokalekuetan, baina ez zuten haitzuloetako arterik landu. Okre aloktonoen, hau da, bizilekura beste leku batetik eramanoen okreen presentziak guztiz iradokitzen digu beren gorputza margotzeko edo igurzteko erabiltzen zituztela Neanderthalgo gizakiek okre koloreak, norberaren apaingarri edo errituzko helburu bati begira, baina hedatu ziren eremu zabalean, egungo Europan eta mendebaldeko Asian, ez da orain arte gizaki haiekin lotu litekeen haitzuloetako arte adierazpen bakar bat ere azaldu.

Beraz, gisa horretako arte adierazpekin topo egingo badugu, beharrezkoa da egungo gizakiarengana, *Homo sapiens* delakoarengana, jotzea. Duela 40.000 eta 10.000 urte bitarteko garaian sortu eta garatu zen fenomeno hori; Europako *homo sapiensaren* kultura espiritualak eskaini digun emaitza apartena, ezagutu zenetik garai guztietako jakitunen eta ez horren jakitunen mira piztuarazi duena: artea.

El arte rupestre está ligado al Paleolítico Superior, es decir al ser humano actual, que comenzó a poblar Europa Occidental hace ahora unos 40.000 años. Los seres humanos que le precedieron en nuestro solar, el hombre<sup>1</sup> de Neandertal, que dejaron abundantes huellas de su presencia tanto en yacimientos al aire libre como en cuevas, no practicaron esta actividad. La presencia de ocre alóctonos, es decir aportados por ellos a su lugar de habitación, parece indicar que eran utilizados para pintar su propio cuerpo, bien como adorno personal, bien con finalidad ritual. Pero hasta el presente, en ningún lugar de su expansión, que abarca Europa y el occidente asiático, se ha visto manifestación artística rupestre alguna atribuible a ellos.

Es pues menester llegar al ser humano actual, *Homo sapiens*, para encontrarnos con tales manifestaciones. Es en esta época que discurre desde hace 40.000 a hace 10.000 años, cuando se da este fenómeno, el más extraordinario de la cultura espiritual del *Homo sapiens* europeo, que ha admirado a sabios y profanos de todos los tiempos, desde que fue conocida su existencia: el arte.

<sup>1</sup> En el término «hombre» incluimos al varón y a la mujer. Hombre es el término vernáculo correspondiente al término científico *Homo*. La mitad de la especie *Homo sapiens* pertenece a las mujeres. Solamente la otra mitad pertenece a los varones.

Halako moduan egin ziren artearen in-guruko ezagutza hauek non historiaurrearen lehenengo ikerlariak berek ere ezin sinetsi baitzuten M. de Sautuolak 1878an Altamiran aurkitu zituen margolan bikain haiek bene-takoak zirenik. Iruzurgiletzat jo zuten haietako batzuek Sautuola, margolan haiekin topo egin zuela esateagatik. Aurkitu zituztenetik hoge-i urte igaro ziren garai hartako historiaurrelari handienek irudi haiek Goi Paleolitoko giza-kiak, Cromagnongo gizakiak hain zuzen ere, egiaz eginak zirela onartu zuten arte.

Hasiera-hasieratik jo zuen arteak hainbat bidetatik, eskulturak, grabatuak, erliebeak, margolanak eta abar eskainiz. Bi arte mota bereiz daitezke arte adierazpen haietan guz-tietan: arte higigarria eta haitzuloetako artea.

Arte higigarria hainbat euskarritan lan-tzen zuten: hezurra, adarra, bolia, harri xaflak edota errekarriak. Adierazpenak ez figura-tiboak ziren batzuetan, adarrean edo hezu-rrean landuriko ehiza nahiz arrantza tresne-tan, azagaietan edota arpoietan marraztuak. Zintzilikarioetan egiten zituzten beste ba-tzuetan irudikatze horiek, eta usadio jakinik gabeko objektuen gainean beste hainbatetan, hezurrezko edo harrizko lauzatxoetan gra-batuak edota harrian, hezurrean, adarrean eta bolian zizelatuak (1. irud.).

Harrizko hormen gainean landutako ar-tea da haitzuloetako edo hormetako artea. Harrizko euskarri finkoen gainean gauza-turiko artea dugu, beraz, hala haitzuloetan nola haize zabalean. Euskal Herrian leize edo haitzuloetan baizik ez da arte hau azaldu, eta margolanak eta grabatuak dira hartan nagusi. Horixe bera dugu Europako haitzuloetako arte paleolitikokoan oro har ageri zaiguna.

Tanto es así, que los primeros prehisto-riadores no creían que aquellas magníficas pinturas, que en 1878 M. de Sautuola des-cubrió en Altamira, fueran auténticas. Algun-os de ellos consideraron un impostor a quien decía haberlas descubierto. Tuvieron que pasar casi 20 años para que los grandes prehistoriadores de la época admitieran que era realmente el ser humano del Paleolítico Superior, el hombre de Cromagnon, el autor de aquellas figuras.

Ya desde sus comienzos el arte tomó derroteros distintos, tales como la escultura, el grabado, el relieve, la pintura etc. En ellas podemos distinguir dos vertientes claras: el arte mobiliario y el arte rupestre.

El arte mobiliario o mueble es el realiza-do sobre objetos diversos tales como hueso, cuerno, marfil, plaquetas de piedra o cantos rodados. A veces se limita a dibujar repre-sentaciones no figurativas sobre instrumen-tos de caza o pesca hechos en cuerno o hueso, tales como azagayas o arpones. Otras veces las representaciones se hacen sobre objetos colgantes. Otras sobre objetos no utilitarios, bien grabados sobre plaquetas de hueso o piedra, bien esculturas de piedra, hueso, cuerno o marfil (fig. 1).

El arte rupestre o parietal es el realiza-do sobre paredes rocosas, es decir, sopor-tes fijos, tanto de cavernas como al aire li-bre. En el País Vasco solamente conocemos arte parietal en las cavernas. Los medios más empleados para ello son la pintura y el grabado. Esto es por otra parte lo más común dentro del arte rupestre paleolítico de Europa.



1. Torreko hezurra (Oiartzun) eta haren marrazkia (I. Barandiaranen arabera).
1. Hueso de Torre (Oiartzun) y dibujo del mismo (según I. Barandiaran).

Margoa edo pintura pigmentu naturalez prestatzen zuten; organikoak ziren batzuk, esate baterako egur-ikatz, eta mineralak beste batzuk, burdin edo manganeso oxidoak nagusiki; horietan erabiltzen ziren maizenik. Kolore beltzak eskaintzen dituzte ikatzek eta manganesoek, eta gorriak eta horiak burdina oxidoek, eta, gainera, bitarteko kolore aukera zabala eskaintzen dute.

Grabatuak hainbat modutan egiten ziren, harrizko euskarriaren gainean. Buztina edo tuparria bezalako euskarri bigunetan, hatzez edo zipotzez itxuratzen zituzten. Euskarri gogorretan, hainbat modutan bidera zitezkeen, suharrizko zulakaitzez, grabatu-lerro azalekoak edo sakonak, finak edo zabalak, itxuratuz. Zenbaitetan, horma karrakatzen zuten aurrez, grabatua gisa horretan landuriko azaleraren gainean egiteko; horrelakoetan, harriaren gainerako aldeak baino kolore argiagoa ageri du grabatutako eremuak.

Margoa hainbat modutan zabaltzen zen harriaren gainean: «tlera» edo lapitz lodi baten gisa, ikatz ilintia edo okre zatia zuzenean igaroraziz; aurrez uretan edo koipean diluituz eta hatzez edo zurdazko pintzelez emanez, edota aerografo moduan putz eginez. Urturiko edo

La pintura se realizaba con pigmentos naturales, algunos orgánicos, como el carbón vegetal y otros minerales como óxidos de hierro o de manganeso especialmente. Estos son los casos más frecuentes. El carbón y el manganeso proporcionan los colores negros y los óxidos de hierro los rojos y amarillos con toda una gama intermedia.

El grabado se aplicaba de maneras distintas según el soporte rocoso. En soportes blandos como la arcilla o la marga podía realizarse con el dedo o un palo. En soportes duros mediante un buril de sílex, aplicado de diversas maneras, originando un grabado suave o profundo, fino o ancho. A veces se raspa previamente la pared para aplicar posteriormente el grabado sobre la zona raspada, la cual en ese caso suele presentar, generalmente, un color más claro que el resto de la roca no tratada.

Esta pintura se aplicaba en la roca bien a modo de «tiza» o lápiz grueso con el tizón de carbón o el trozo de ocre, bien diluyéndola previamente en agua o grasa y aplicándola con el dedo o con un pincel de cerdas, bien soplando a modo de aerógrafo mediante la diáfisis o caña de un hueso don-



diluituriko margoz beteriko hezur diafisiez edo hezur xirulez baliatzen ziren horretarako.

Haitzuloetako artearen adierazpenak figuratiboak eta ez figuratiboak izan daitezke. Aurrenekoen artean, garai haietako animaliak irudikatzen dituztenak ageri zaizkigu ugarien: zaldiak, bisonteak, uroak, oreinak, elur-oreinak, basahuntzak, sarrionak, saigak eta beste haragijale eta arrain batzuk. Noizbehinka ageri dira erbiak, hegaztiak eta sugeak ere, Altxerrin gertatu bezala. Askoz ere bakana goak dira giza irudiak. Eskematikoak izaten dira horiek eskuarki, eta ez errealistak, animalien irudietan ez bezala. Animalien berezitasunak iradokitzen dizkiguten ezaugarriak ageri dituzte askotan.

Adierazpen ez figuratiboak askotarikoak dira, eta interpretatzen oso zailak. Lerro luze soilak izan daitezke batzuetan, edo sigi-sagan etenak, uhinen itxurakoak, izarren tanke-rakoak, bai eta itxiak ere, hirukiak, erronboak edo obaloak eratuz, eta abar. Oso bakanak dira azken horiek Euskal Herriko haitzuloetako artean.

*Homo sapiens*aren arte adierazpen horiek bereziki hurbiltzen gaituzte, gainerako elementu guztiek baino areago, orduko gizakiaren izpiritu eta pentsamendura. Hala eta guztiz ere, hutsune handiak daude oraindik ere haitzuloetako arte paleolitikoaren ezagutzan eta ikerketan, eta bereziki gailentzen dira haien artetik betidanik kezkatu eta betiere kezkatzen eta kezkatuko gaituzten honako galdera haiek: zergatik eta zertarako margotu eta grabatu zuten gizaki haiek? zerk bultzatu zituen irudi haiek sortzera? zer dela-eta burutu zituzten gehienetan artelan haiek haitzuloetako alde hain sakon eta ilunetan?

de se había colocado previamente la pintura muy diluida.

Entre las representaciones del arte rupestre las hay figurativas y no figurativas. Entre las primeras las más abundantes son las que representan animales diversos de la época, tales como caballos, bisontes, uros, ciervos, renos, cabras monteses, sarríos, saigas y algunos carnívoros y peces. Ocasionalmente se observan liebres, aves y aún serpientes como en Altxerri. Menos numerosas son las representaciones humanas. Éstas suelen ser generalmente esquemáticas y no realistas como en el caso de las representaciones animales. Muchas veces presentan atributos que sugieren particularidades animales.

Entre las no figurativas existe una variedad grande de muy difícil interpretación. Pueden ser simples líneas longitudinales, quebradas en zig-zag, onduladas, estrelladas, cerradas formando triángulos, rombos u óvalos etc. Éstos son escasos en el arte rupestre del País Vasco.

Estas manifestaciones del *Homo sapiens* nos acercan, más que las restantes, a su espíritu y pensamiento, aunque la investigación del arte rupestre paleolítico tropiece con incógnitas graves, entre las cuales la que más destaca es precisamente una de las que más interesa: ¿Por qué y para qué pintaron y grabaron aquellos hombres? ¿Qué motivaciones les movieron a efectuar estas figuras? ¿Por qué las realizaban en la mayoría de los casos en zonas tan profundas de las cavernas?

Lekukotza ugari bezain ederrak utzi ditu haitzuloetako arte paleolitikoak Euskal Herriko koba eta leizeetan. Egia esan, espero izatekoak ziren horrelako agerraldi eta adierazpenak gure artean, kontuan hartzen badugu Euskal Herria garai haietako arte sorkuntzak okupatu zuen funtsezko eremuaren bihotzean dagoela. Izan ere, Kantauri aldeko lurraldeak, Akitania eta Ariège eta Ardècheko ibai-arroak hartzen ditu leizeetako artearen lurralde nagusiak (Lurralde Franko-Kantauriarra izenaz ezaguna da eremu hori), nahiz eta fenomeno hori hartatik oso urrun dauden beste lurralde batzuetara ere hedatzen den (Portugaletik Errusiako Ural mendien hegoaldeko lurraldeetaraino dira eza-gunak haitzuloetako artearen adierazpenak).

Bestalde, Europako hego mendebaldeko talde ehiztari-fruitu biltzaileen ezinbesteko pasabide ziren euskal lurralde behereagoak, Pirinio mendien mendebaldean, Iberiar Penintsulara eta, bereziki, Kantauri aldeko lurraldeetara jotzean. Eusko Jauriaritzak Errenteriako Aitzbitarte III leizeko indusketa lanean geuk eginiko aurkikuntzei buruz argitaraturiko ikerketek (EKOB, 2011) ageri-agerian utzi dituzte, kontuan hartzen badugu leize hartan erabilitako suharrien jatorria, haitzulo hura okupatu zuten taldeen eta beste talde paleolitikoen artean zeuden harremanak (La Chalossetik Asturias bitarteraino, alde bate-tik, eta Trebiñu inguruetaraino, bestetik).

Bada, Gure Lurrean dauden lekukotzen kontu xehea eskaini eta jatorrizko aztarnategietara edota haien errepliketara (horrelakoak alde zedo molde zegin eta prestatuak direnean) egin litezkeen bisitaldien berri jakinarazi nahi dizue liburutxo honek.

En el País Vasco la presencia del arte rupestre paleolítico de las cavernas ha dejado numerosos y extraordinarios testimonios. Eran de esperar estas grandes manifestaciones entre nosotros, habida cuenta de la situación del País Vasco en el corazón del área fundamental de creación artística de esas épocas, área que en lo referente al arte rupestre abarca principalmente la Región Cantábrica, Aquitania y las cuencas fluviales del Ariège y el Ardèche (la llamada Región Franco-Cantábrica), si bien en forma más humilde y dispersa este fenómeno se extiende hasta zonas muy alejadas de la misma, conociéndose desde Portugal hasta Rusia, en la zona meridional de los Urales.

Por otro lado la llamada depresión vasca al W del Pirineo era paso obligado de los grupos cazadores-recolectores del SW europeo hacia la Península Ibérica, en especial la Región Cantábrica. El estudio recientemente publicado (2011) en la serie EKOB del Gobierno Vasco sobre los hallazgos en la cueva de Aitzbitarte III de Errenteria excavada por nosotros, ha mostrado claras relaciones entre los grupos que habitaron la caverna y otro grupos paleolíticos que van desde La Chalosse hasta Asturias por un lado y Treviño por otro, a juzgar por la procedencia de los materiales de sílex empleados.

Este librito desea dar cuenta sucinta de los testimonios existentes en nuestra Tierra, indicando a la vez las visitas que pueden hacerse, bien a los yacimientos originales, bien a sus réplicas cuando éstas han sido llevadas a cabo de una u otra forma.

Azken izotzaldi edo izotz aroaren, hau da, Würm glaziazioaren bigarren aldian egin eta gertatu ziren Euskal Herriko Goi Paleolitoko arte adierazpenak. Bigarren aldi hartan, murrerara jo zuten klima balioek, eta orduantxe ezagutu ziren izotzaldi hartako garai hotzenak. Betiko elurren muga, egun Pirinio mendietan 3.500 metro inguruan daukaguna, 1.100 metroko kotara jaitsi zen izotzaldi hartako garai hotzenetan. Betiko elurren mendean zeuden Gorbeia, Aizkorri, Aralar eta, esan gabe doa, Nafarroako Pirinioetako gailur gorenak (2. irud.). Urte osoan edo hilabete gehienetan elurren mendean zegoen hesia itxuratzen zuen Ozeano Atlantikoko eta Mediterraneo Itsasoko uren arteko banalerroak, eta mendialdeko leerro honek zehaztua zegoen: Mendebaldeko Pirinioak-Belate-Otsola-Aralar-Altzania-Elgea-Gorbea-Garobe-Ordunte. Egungoak baino 10º hotzagoak ziren batez besteko tenperaturak. 22.000. eta 18.000. urteen bitartean jo zuten tenperatura haiek muturra.

Egoera hark beharturik, hein handian abandonatu egin behar izan zituzten orduko biztanleek Euskal Herriko hegoaldeko lurrrak, Ozeano Atlantiko aldeko haranetako leizeetan babesteko, Araba eta Nafarroako goi lurraldeek baino babes egokiagoa eskaintzen zutelako. Itsasaldeko lurretan ere, 500 metroko garaieratik behera ageri dira Goi Paleolitoan okupatu eta jendeztatu ziren leize gehienak, oso bakanak baitira goragoko mailaren batean azaldu diren aztarnategiak.

Las manifestaciones paleolíticas de arte existentes en el País Vasco tienen lugar durante la segunda parte de la última glaciación, la glaciación würmiense. Es en esa segunda parte cuando se da el mayor recrudescimiento climático de esta glaciación y cuando tienen lugar los períodos más fríos de la misma. El límite de las nieves perpetuas, situado hoy en el Pirineo hacia los 3.500 m de altitud, bajó hasta los 1.100 m en las fases más frías. Las cumbres de Gorbea, Aizkorri, Aralar y desde luego el Pirineo navarro estaban bajo nieves perpetuas (fig. 2). La cordillera que hace de divisoria de aguas atlántico-mediterráneas (Pirineo Occidental-Belate-Otsola-Aralar-Altzania-Elgea-Gorbea-Garobe-Ordunte) era una barrera casi continua de nieves perpetuas o con nieve durante muchos meses del año. Las temperaturas medias eran unos 10º inferiores a las actuales. El mayor recrudescimiento tuvo lugar entre los años 22.000 y los 18.000.

Todo esto obligó a los grupos humanos del País a deshabitar en buena medida las tierras meridionales del mismo, para refugiarse en las cuevas de los valles de la vertiente Atlántica, mucho más abrigados que las tierras altas de Álava y Navarra. Incluso en la vertiente Atlántica las cuevas con habitación del Paleolítico Superior están situadas por debajo de los 500 m de altitud. Esto no impide que ocasionalmente aparezca algún yacimiento estacional en cotas más elevadas.



2. Aizkorriko mendialdea urte osoan zehar, egongo zen bezala azken izotzaldiko garai hotzenean.  
2. Sierra de Aizkorri tal y como se encontraría todo el año durante el período álgido de la última glaciación.

Garrantzi handia du datu horrek, kontuan harturik egun itsasertzean ageri diren aztarnategiak garai haietan itsasotik 12 km barrurago zeudela.

Nolanahi ere, izotzaldiko garai hotzenak igaroak zirenean, hau da, glaziazioaren amaierako faseetan, eratu eta gorpuztu ziren arte multzo garrantzitsuenak eta ikusgarrienak, hala nola Altxerri, Ekain eta Santimamiñe. Beste garai eta egoera batzuetakoak dira, ordea, beste arte multzo ez horren hornitu batzuk, hala nola Altxerriko goi galeria, Venta Laperra eta Areatza.

Este hecho tiene gran importancia, ya que los yacimientos situados hoy en las proximidades del mar estuvieron en esas épocas unos 12 km más lejos del mismo.

De todas formas los conjuntos más importantes y espectaculares, como Altxerri, Ekain y Santimamiñe fueron realizados cuando estos períodos álgidos de la glaciación habían desaparecido, ya que tienen lugar en las fases finales de la misma, el Tardiglaciario. Otra cosa es algunos otros conjuntos más escasos, como la galería superior de Altxerri, Venta Laperra o Arenaza.





Haitzuloetako arte paleolitikoa ageri  
duten aztarnategiak Euskal Herrian

Cuevas con arte rupestre  
paleolítico en el País Vasco

## Haitzuloetako arte paleolitikoa ageri duten aztarnategiak

### Cuevas con arte rupestre paleolítico

Paleolitoko margolanak eta grabatuak dauzkaten hemezortzi aztarnategi ezagutzen ditugu egun Euskal Herrian. Atlantiko aldean daude guztiak, Zuberoatik Bizkaiko mendebaldeko muturrera doan lerroan banatuak, 3. irudiko mapan ikus daitekeen bezala. Hona hemen haien banaketa:

Hiru aztarnategi Zuberoan: Etxeberriko Karbia, Altzürükün, eta Sasiziloaga eta Sinhikoleko Karbia, Gamere-Zihigan.

Bakarra Nafarroa Beherean: Izturitze, izen bereko herrian. Haitzuloetako artearen hiru multzo ageri dira karst gune garrantzitsu honetan: Izturitze, Otsozelaia-Hariztoi eta Erberua.

Bakarra Nafarroa Garaian: Alkerdi, Urdazubin, lurraldeko iparraldeko muturrean, eta, geografiari dagokionez, Akitaniako ibaien arroan.

Bost Gipuzkoan: Altxerri, Aian; Ekain, Astigarraga eta Praileaitz, Deban, eta Aitzbitarte IV, Erreterian.

Zazpi Bizkaian: El Polvorín, Venta Laperra eta El Rincón, Karrantza Haranan; Areatza, Galdamesen; Santimamiñe, Kortezubin; Antoliñako Koba, Gautegiz Arteagan; Askondo, Mañarian, eta Lumentxa, Lekeitio.

Actualmente conocemos 18 yacimientos con pinturas y grabados rupestres paleolíticos en el País Vasco. Estos yacimientos están distribuidos en toda la banda atlántica del mismo desde Zuberoa hasta el extremo occidental de Bizkaia, tal como puede observarse en el mapa de la figura 3. Esta distribución es como sigue:

Tres yacimientos en Zuberoa: Etxeberriko karbia en Alzürükü, Sasiziloaga y Sinhikoleko karbia en Gamere Zihiga.

Uno en Baja Navarra: Isturitz, en el pueblo del mismo nombre. Es un importante complejo kárstico que encierra tres conjuntos de arte rupestre (Isturitz, Otsozelaia-Hariztoi y Erberua).

Uno en Navarra: Alkerdi en Urdazubi, en la parte más septentrional del Territorio, que geográficamente pertenece ya a la cuenca aquitana.

Cinco en Gipuzkoa: Altxerri en Aia, Ekain, Astigarraga, Praileaitz en Deba y Aitzbitarte IV en Erreterian.

Siete en Bizkaia: El Polvorín, Venta Laperra y El Rincón, en el Valle de Carranza, Areatza en Galdames, Santimamiñe en Kortezubi, Antoliñako koba en Gautegiz Arteaga, Askondo en Mañaria y Lumentxa en Lekeitio.



3. Euskal Herrian haitzuloetako artea gorde duten leizeen banaketa mapa.  
 (1) Venta Laperra, El Rincón, El Polvorín. (2) Areatza. (3) Santimamiñe, Antoliña. (4) Askondo. (5) Lumentxa, (6) Praileaitz I. (7) Ekain, Astigarraga. (8) Altxerri. (9) Aitzbitarte IV. (10) Alkerdi. (11) Izturitze-Otsozelaia-Erberua. (12) Etxeberriko Karbia, Sasiziloaga eta Sinhikoleko Karbian.
3. Mapa de distribución de las cuevas con arte rupestre de Euskal Herria.  
 (1) Venta Laperra, El Rincón, El Polvorín. (2) Arenaza. (3) Santimamiñe, Antoliña. (4) Askondo. (5), Lumentxa, (6) Praileaitz I. (7) Ekain, Astigarraga. (8) Altxerri. (9) Aitzbitarte IV. (10) Alkerdi. (11) Complejo de Izturitz-Otsozelaia-Erberua. (12) Etxeberriko Karbia, Sasiziloaga y Sinhikoleko Karbia.

Hemezortzi aztarnategi horietatik, Gipuzkoa eta Bizkaiko hamahiruak baizik ez daude Euskal Autonomia Erkidegoan.

Bizkaiko mendebaldeko muturretik hasita deskribatuko ditugu, alde hartan aurkitu baitzen Euskal Herrian haitzuloetako artea gorde duen aurreneko aztarnategia.

De estos 18 yacimientos solamente los 13 de Gipuzkoa y Bizkaia pertenecen a la Comunidad Autónoma Vasca.

Los describiremos comenzando por el extremo occidental de Bizkaia, que es además donde fue descubierto el primer yacimiento con arte rupestre en el País Vasco.





4. Venta Laperra eta Polvorin kobak.

4. Cuevas de Venta Laperra y Polvorin.

---

## Venta Laperra

(Karrantza Harana, Bizkaia)

---

Hona hemen Euskal Herriko haitzuloetako artean egin zen lehendabiziko aurkikuntza. 1904an topatu zuten, orduko zientzia komunitateak Paleolitoko adierazpen hauek benetakotzat hartu zituen garaian hain zuzen ere. Hartz baten irudia aurkitu zuen urte hartan L. Sierrak leize honen sarreran. Bi urte geroago, irudi gehiago topatu zituzten H. Breuil eta M. Cartailhac historiaurrelari frantsesek: hiru bisonte eta beste zeinu batzuk, kobaren atarian betiere. Beste bisonte baten irudia aurkitu zuen M. Lopezek urte batzuk geroago, 1950ean hain zuzen ere.

Hona hemen koba honen gaineko bibliografia iturri nagusiak: H. Alcalde del Río, H. Breuil eta L. Sierra, 1912an; J. M. Apellaniz, 1982an, eta X. Gorratxategiren berrikustea, 2000. urtekoa (kasu guztietako bibliografia ikusteko, liburuarekin batera argitaraturiko CDa kontsulta bedi).

---

## Venta Laperra

(Valle de Carranza, Bizkaia)

---

Este es el primer hallazgo de arte rupestre en el País Vasco. Tuvo lugar en 1904, muy poco después de que estas manifestaciones paleolíticas fueron admitidas como auténticas por la comunidad científica del momento. El año citado L. Sierra descubrió una figura que representa un oso cerca de la entrada de la cueva. Dos años más tarde los prehistoriadores franceses H. Breuil y M. Cartailhac descubrieron más figuras, consistentes en tres bisontes y unos signos en la entrada misma. Muchos años más tarde, en 1950, M. López descubrió un bisonte más.

Las fuentes bibliográficas principales son la de H. Alcalde del Río, H. Breuil y L. Sierra de 1912, la de J. M. Apellaniz de 1982 y la revisión reciente de X. Gorratxategi en 2000 (Véase la bibliografía, para todos los casos, en el CD adjunto).

Peña Ranero mendiaren oinean dago, Kantabriako mugatik hurbil, kareharri urgoniarrez itxuraturiko koba hau (4. irud.). Zabala da ataria, 7 m zabal eta 11 m gora, eta mehetu egiten da ondoren pasabidea, ezkaratz txikiago bati lekua eginez. Aurrera jo eta goranzko maila bat ageri du orduan; koska haren ondoan topatu dira irudi gehienak.

Sarreran dago aurreneko irudia, elkarren artean gurutzaturiko marra ugari ageri dituena, eta metro gutxi batzuetara azkenekoa, hartza hain zuzen ere. Irudiak koba barruan azaldu diren lekuak edo kokapenak bereizten du Venta Laperrako multzoa Euskal Herriko beste gainekoetatik. Izan ere, beste kasu gehienetan ez bezala, eguzkiaren argitasunarekin ikus daitezke koba honetako irudiak. Ez da besteetan horrelakorik gertatzen, ilunpe betean ageri baitira irudiak leizeen barrunbeetan, maila oso sakonenean batzuk, ez horren barruan beste batzuk. Venta Laperrako kasu honetan, kanpoko santutegi baten aurrean geundeke.

Lau bisonte, hartz bat, uroen antza hartzen diogun arren guztiz zehaztu ezin daitezkeen abelgorri bat, marra sail bat, paraleloan batzuk eta gurutzatuak beste batzuk, eta zehaztu gabeko animalia baten zati bat itxuratuko luketenak, aurkezten dituzte leize barruan ageri diren irudiak.

Atzealdeak ageri dituzte lehenengo bi bisonteez; aurrez aurre daude, metro eta erdi eskas elkarren artean, kobaren ezkerreko horman. Konkorraren atzealdearen hasiera ageri dute bi irudiak, eta buztana xut biek ala biek (arkua eratuz horietako batek). Ipurmamia, atzeko hankaren alde proximala eta sabelaren atzealdearen hasiera ere ageri dituzte. Bi metrotik gora daude zurutik (5. irud.).

La cueva, formada en calizas urgonianas, está situada en la falda de Peña Ranero (fig. 4), cerca de la frontera con Cantabria. Presenta una entrada amplia de unos 7 metros de anchura por 11 de alto, que se estrecha después en un vestíbulo algo más reducido. Éste, más adelante, presenta un desnivel o escalón ascendente, tras el cual se encuentra la mayor parte de las figuras.

La primera, consistente en numerosas líneas entrecruzadas, está a la entrada y la última, el oso, pocos metros más adelante. Esta situación en la cueva distingue a estas figuras, en cuanto a su localización, de los demás conjuntos rupestres del País. Éstas en efecto pueden contemplarse a la luz del día mientras que casi todas las demás se sitúan en zonas más o menos profundas en completa obscuridad. En este caso se trataría de un santuario exterior.

Las figuras existentes son cuatro bisontes, un oso, un bóvido poco definido, que puede representar un uro y una serie de líneas, bien paralelas, bien cruzadas, que en casos pueden representar parte de algún animal no definido. La mayor parte de las figuras y signos están realizados mediante un grabado relativamente profundo en la roca.

Los dos primeros bisontes están representados por sus cuartos traseros y se encuentran enfrentados a algo menos de metro y medio de distancia, en la pared izquierda de la cueva según se entra. Están representadas en ambos el arranque posterior de la giba, la cola elevada en los dos y además arqueada en uno de ellos, la nalga, la parte proximal de la pata trasera y el arranque posterior del vientre. Se encuentran a más de dos metros de altura del suelo (fig.5).



5. Ezkuinean: Venta Laperrako bisontea. Ezkerrean: haren kalkoa.  
5. Derecha: bisonte de Venta Laperra. Izquierda: calco del mismo.

Bi bisonte horien aurre-aurrean ia, barruraxeago nolanahi ere, kobaren eskuinaldeko horman, ageri dira gainerako irudiak, zorutik bi metrotik gorako mailan hauek ere, ondoren aipagai izango dugun bisontea izan ezik, metro eta erditik beherako mailan ageri baita. Enbor osoa ageri duen arren, burua falta du guztiz, bai eta hanken eta isatsaren mutur distalak ere. Zalantza gehiago sorrazten ditu, zehazterakoan, beste bisonteak; bertikalean itxuratuko zuten. Osoago ageri da paneleko azken irudia, hartza, sabeleko lebroa baizik ez baitu eskas (6. irud.).

Osorik ageri da ia-ia uroa zitekeena; hankarik gabe, nolanahi ere.

Kobaren sarreran bada aztarnategi arkeologiko bat, T. Aranzadik eta J. M. Barandiaranek zundaketa bidez ikertu zutena. Aipaturiko autoreen arabera, Aurignac aldikoak genituzke «beharbada» zundaketa hartan agertu ziren material bakanak. R. Ruiz Idarragak induskatu berri du aztarnategia eta Moustier aldiko eta Goi Paleolitoaren hasierako mailak zehaztu ditu bertan.

Leize honen ondoan bada beste bat, El Polvorín izenekoa. Ondoren mintzatuko gara hartaz, arestian aipaturiko autoreek indusketa lanak bideratu baitzituzten bertan.

Casi enfrentadas a estos dos bisontes, en posición algo más avanzada, en la pared derecha de la cueva, se encuentran las demás figuras, también a más de dos metros de altura del suelo, salvo el bisonte que mencionamos a continuación, que está a poco menos de metro y medio. Este bisonte presenta su tronco casi completo, pero falta la cabeza, los extremos distales de las patas y la cola. El otro, más dudoso en su determinación, se encontraría en posición vertical. La última figura del panel, el oso, está más completo, a falta de la línea ventral (fig. 6).

El posible uro está casi completo, a falta de las patas.

A la entrada de la cueva existe un yacimiento arqueológico en el que practicaron un sondeo T. de Aranzadi y J. M. de Barandiaran. Los escasos materiales obtenidos son «tal vez» Auriñacienses según los autores citados. Recientemente ha sido excavada por R. Ruiz Idarraga, descubriendo niveles Musterienses y del Paleolítico Superior inicial.

Junto a esta cueva hay otra denominada El Polvorín, de la que hablaremos a continuación y en la que también practicaron excavaciones los autores mencionados, en-



6. Ezkuinean: Venta Laperrako hartza. Ezkerrean: haren kalkoa.  
6. Derecha: oso de Venta Laperra. Izquierda: calco del mismo.

Aurreko kasuan bezalaxe, Aurignac aldiko-tzat jo zituzten han zehazturiko mailak.

Lekukotza zuzenagorik ezean, ez da batere erraza koba hauetako irudiak garai horretakoak diren ala ez zehaztea. Goi Paleolitoaren hasierako une batekotzat jo dira nolana ere. Bada, irudi hauetako batzuk estaltzen dituzten estalagmita geruzetan bideraturiko datazioek guztiz berretsi dute iritzi hori, duela 25.000 urtetik gorako datak eskaini baitituzte.

contrando niveles que atribuyeron también al Auriñaciense.

Si las figuras rupestres pertenecen a esta misma época no es fácil de decidir a falta de testimonios más directos. En todo caso han sido atribuidas a un momento antiguo del Paleolítico Superior. Esto ha sido confirmado por dataciones llevadas a cabo en coladas estalagmíticas que recubren algunas de las representaciones y que han arrojado fechas superiores a los 25.000 años desde hoy.

---

## El Polvorín

(Karrantza Harana, Bizkaia)

---

Aurrekotik oso hurbil, haren ezkerretara hain zuzen ere, dago koba hau, eta 2004an aurkitu zituen J. Ruiz Cobok haren barnean gorde diren arte adierazpenak.

Leize honetan, 1931n hain zuzen ere, aztarnategi arkeologiko bat aurkitu zuen J. M. Barandiaranek, T. Aranzadirekin batera bideratu zituen indusketa lanetan. Berrikiago ikertu zuen R. Ruiz Idarragak, eta Moustier aldiko eta Goi Paleolitoaren hasierako materialak topatu zituen.

---

## El Polvorín

(Valle de Carranza, Bizkaia)

---

Las manifestaciones de esta cueva, situada muy cerca de la anterior, a su izquierda, han sido hallados en 2004, por parte de J. Ruiz Cobo.

En esta cueva J. M. de Barandiaran descubrió un yacimiento arqueológico en 1931, que lo excavó junto con T. de Aranzadi, como hemos dicho, y recientemente R. Ruiz Idarraga, con materiales Musterienses y del Paleolítico Superior inicial.

Haitzuloetako grafismoak agertu dira kobako ezkaratzean. Ardatz itxurako lerroak dirabatzuk, ezkaratzaren eskuinaldeko harrizko horman grabatu zirenak, eta marra lodiko lerroak besteak, ezkerraldeko horman azaldu direnak. Venta Laperrakoan aipatu ditugun taxukoak dira grabatu hauek, eta garaitsukoak izango dira seguruenik, Goi Paleolitoaren hasierakoak hain zuzen ere.

---

## El Rincón

(Karrantza Harana, Bizkaia)

---

Aurreko koban gertatu bezala, 2004an topatu zituen J. Ruiz Cobok leize honetako grafismoak ere. R. Montesek eta laguntzaileek eman zuten haien berri 2005an, eta C. González Sainzek eta D. Garatek 2006an.

Karrantzan aipaturiko aurrekoetatik hurbil dago koba hau, Venta Laperratik 25 metro ingurura, eskuinetara. Atari zabala ageri du, 7 m zabal eta 9 m gora. Ezkaratz zabal batek ematen dio atariari segida, eta 15 bat metroko sakonera du. Haren ezkerraldeetik arrapala piko batean goiti igo ondoren, 30 metroko luzera duen galeria baten sarrerara iristen gara. Bada, 9 metroko luzerako beste galeria batek ematen dio amaiera muturrean galeria horri.

Ezkaratzaren hondoan ageri dira, egun argitan ikusteko moduan, aurreneko arte adierazpenak, grabaturiko lerro mehe laburrek osaturiko multzo batean.

Sarreratik 32 metro ingurura, sabaiaren ondoan, animalia baten aurrealdea eta bizkerraldea ageri ditu grabatu batek. Adarrak eta begi bat ageri ditu buruak. Berriki egina da, González Sainzen eta Garateren iritziz.

Amaierako galeriaren hasieran, haren ezkerraldean hain zuzen ere, orein oso bat

Los grafismos rupestres se limitan al vestíbulo de la cueva. Se trata de unas líneas fusiformes grabadas en la pared rocosa de la derecha del vestíbulo y otras líneas de grabado grueso en la de la izquierda. Estos grabados se parecen a los mencionados en Venta Laperra y pueden corresponder a una misma época, es decir, a un periodo antiguo del Paleolítico Superior.

---

## El Rincón

(Valle de Carranza, Bizkaia)

---

Los grafismos de esta cueva han sido hallados también en 2004, por J. Ruiz Cobo y publicados por R. Montes y colaboradores en 2005 y por C. González Sainz y D. Garate en 2006.

La cueva está situada cerca de las descritas, a unos 25 m y a la derecha de Venta Laperra. Presenta una amplia entrada de 7 m de anchura por 9 de alto. Esta entrada da paso a un extenso vestíbulo de 15 m de profundidad. Desde la parte izquierda del mismo, subiendo una empinada rampa, se accede a una galería larga de unos 30 m de longitud, que luego se prolonga en una galería final de otros 9 m.

Al fondo del vestíbulo, visibles a luz natural, se encuentran las primeras manifestaciones, constituidas por un grupo de líneas grabadas finas y cortas.

A 32 m de la entrada, junto al techo, hay un grabado que representa la parte anterior y dorsal de un animal. La cabeza lleva cuernos y un ojo. González Sainz y Garate la consideran de factura reciente.

Al comienzo de la galería final y a la izquierda de la misma hay un ciervo completo



7. Oreina eta dagokion kalkoa.

7. El Rincón. Ciervo y calco del mismo.

ageri da grabaturik; sakon xamarra du trazua eta gezi bizarduna ageri du saiheanean (7. irud.). Perspektiba okertuan azaldu zituzten adarrak: burua eta oinarriko orkatzak saiheka ageri badira ere, aurrez aurre ikusten dira ia-ia hagak, oso luzeak.

Uro bat grabatu zuten haren behealdean, baina oreina baino egoera askoz txarragoan dago; ordea, ongi sumatzen zaizkio adarrak eta bizkarraren lerroa. Marra meheago batzuek irudikatzen dute aurrealdea. Gezi bat ageri du uroak, bularrean sastaturik. Marra lodi multzo bat ageri da irudi hauen aurrean.

Orban gorri batzuk ageri dira galeria honen amaieran, estalagmita zutabe baten eta harri koska batzuen gainetik.

Lerroak eta orbanak alde batera utzirik, Madeleine aldiaren aurreko garai batera garamatzate animalia irudi horiek.

Hiru leize hauetatik oso hurbil, Kantabriako lurraldearen barnean baina Karrantza ibaiaren haranean betiere, Arco A, Arco B-C, Pondra eta Morro del Hordillo kobak daude, Goi Paleolitoko artelanak erakusgai horietan ere.

grabado con trazo bastante profundo, con un venablo barbado en el ijar (fig. 7). La cuerna está representada en perspectiva torcida. La cabeza y los candiles basales están de perfil pero las varas, extremadamente largas, están vistas casi de frente.

Bajo él se grabó un uro, hoy mucho peor conservado, en el que se ven bien los cuernos, seguidos de una línea dorsal. Otras más finas dibujan otras partes del tren delantero. Lleva también un venablo clavado en el pecho. Frente a estas figuras hay un grupo de líneas gruesas.

Al final de esta galería, sobre una columna estalagmítica y salientes de la roca, hay manchas rojas.

Independiente de las líneas y manchas, las figuras de animales parecen apuntar también a una fase premagdalenense.

Muy cerca de estas tres cuevas en el mismo valle del río Karrantza, si bien en territorio de Cantabria, se encuentran las cuevas también decoradas de Arco A, Arco B-C, Pondra y Morro del Hordillo.



8. Orein emeen ganbararako sarrera, Areatzan.  
8. Entrada a la cámara de las ciervas de Arenaza.

---

## Areatza

(Galdames, Bizkaia)

---

Haitzuloetako artearen aztarnategi berri bat aurkitu zuen P. M. Gorrotxategik 1973an Areatzako koban. Hona hemen haren gaineko bibliografia iturri nagusiak: J. M. Apellaniz, 1982an; X. Gorrotxategi, 2000an, D. Garatek, J. M. Jiménezek eta J. Ortizek bi urte geroago argitaratu zuten berrikuste lana, eta ondoko berrikuste lan bat (2004), D. Garatek aurkeztua.

Alta Galdames izeneko mendialdearen oinean, Behe Kretazikoko kareharri burdintsuen tartean hain zuzen ere, irekitzen da koba. Meatze ustiaketa garrantzitsuak izan ziren eskualde horretan, burdina asko egoteagatik. Meatze jarduera haien ondorioz, biziki kalteturik ageri dira irudiak, dardaraldi bortitzen eraginez arras areagotu eta biziagotu baita irudiei eusten dien arrokaren zartzate prozesua, geroago ikusiko dugun moduan.

Karst multzo garrantzitsuetan ugari ageri ohi diren leize edo haitzuloetako bat baizik ez

---

## Arenaza

(Galdames, Bizkaia)

---

En 1973 P. M. Gorrotxategi descubrió en la cueva de Arenaza un nuevo yacimiento de arte rupestre. Las fuentes bibliográficas principales son la obra de J. M. Apellániz de 1982, la de X. Gorrotxategi de 2000, la revisión que dos años más tarde publican también D. Garate, J. M. Jiménez y J. Ortiz y una revisión posterior (2004) de D. Garate.

La cueva, sita en la base del macizo denominado Alta de Galdames, se abre en calizas del Cretácico Inferior ricas en hierro, lo que originó una intensa explotación minera en la zona. Esta actividad minera ha perjudicado a las figuras, acelerando e intensificando mediante sus vibraciones, el proceso de desconchamiento que se observa en la roca soporte de las mismas, como veremos más abajo.

Esta cueva en realidad es una de tantas cavidades dentro de un complejo kárstico

da, izan ere, koba hau. Aztarnategiko sarrera haranetik 50 bat m gora irekitzen da; sarrera zabala eta eroso da, eta 20 metroan hedatzen den ezkaratz zabalari egiten dio lekua.

Hala eta guztiz ere, ikusiko ditugun beste leize batzuetan gertatzen den bezala, bereziki zaila eta bihurria da aurreneko irudi multzorako sarbidea, atariko sarreratik 140 metroko bidean urruntzen dena. Gehienez 2,5 metroko zabalera eta 10 metroko luzera iristen dituen udare itxurako ganbara txiki batean ageri da multzo hori, eta hara iritsi ahal izateko, ezinbestekoa da 40 metroko luzerako galeria estu batean barrena 40 metro ahuspezka egitea. Katazulo honetatik ganbarara irekitzen den ahoak metro beteko garaiera eta metro erdi pasaxeko zabalera du doi-doi (8. irud.). Ganbara gorantz luzatzen da sarreraren beste aldeko norabidean. Deigarria da, guztiz, garai haietako gizaki haiek, atzean horma-atal zabalak landu gabe utzirik, katazulo honetatik «irristatu» izana.

Orein eme multzo bat ageri da leize-zulo sakoneko ganbara edo santutegi txiki honetan; egoera oso txarrean daude gehienak, irudiei eusten dien arrokak ondoko garaietan pairatu behar izan dituen zartatze eta ezkatatze prozesuen ondorioz.

Gorritz margotuak dira ganbara honetako orein emeak (9. irud.), eta haien ondoan, gorritz ageri dira, halaber, lerro eta puntu batzuk. Antzeko teknika erabili zuten hurbil diren Kantabriako leize batzuetan, hala nola Covalanas eta La Pasiega kobetan, irudiak egitean ondoz ondoko puntukatze edo tanpoitze teknikaren antzeko metodoa baliatu baitzuten.

Orein emeak, hamabi dira guztira, ganbarako sarreraren ondoko behealdean, eskuin nahiz ezkerrean, ageri dira batzuk, eta goialdean beste batzuk, sarreratik urrunen

importante. La entrada al yacimiento, que se encuentra a 50 m de altura sobre el valle, es cómoda y amplia y se abre a un extenso vestíbulo de unos 20 m de anchura.

En cambio también aquí como en otras cuevas más que veremos, el acceso al primer conjunto de figuras, alejado de la entrada 140 m, es particularmente difícil. Este conjunto se halla en una pequeña cámara piriforme de 2.5 m de anchura máxima y 10 de longitud, para llegar a la cual es menester gatear por una estrecha y larga galería de 40 m de longitud. La salida de esta gatera a la cámara misma tiene una altura de 1 m y una anchura de poco más de medio metro (fig. 8). La cámara tiene una prolongación ascendente situada en el punto opuesto al de entrada. Llama la atención cómo dejando grandes lienzos de pared sin decorar, se «colaron» por esta difícil gatera.

En esta pequeña cámara o santuario profundo hay un conjunto de ciervas, la mayor parte de cuales se encuentra en muy mal estado de conservación, debido al cuarteamiento y desconchamiento ulterior que la roca soporte de las figuras ha sufrido.

Las ciervas de esta cámara están pintadas en rojo (fig. 9), así como también algunas líneas y puntos existentes, mediante una técnica de punteado o tamponado yuxtapuesto similar a la utilizada para realizar las figuras de cuevas próximas de Cantabria, tales como la de Covalanas y La Pasiega.

Las ciervas (una docena) están colocadas, por un lado, en la parte inferior próxima a la entrada de la cámara, tanto a la izquierda como a la derecha de la misma y por otro lado, en la parte superior, la más distante de





9. Orein emea,  
Areatzako ganbaran.

9. Cierva de la cámara  
Arenaza.

dagoen aldean hain zuzen ere, ganbara luzatzen den gunearen eskuin nahiz ezkerraldean. Osorik ageri zaizkigu ia-ia haietako lau, pintura beti bat ez bada ere. Burua, belarriak ('V' itxurakoak), lepoa, bularra eta bizkarra ageri ditu hobekien kontserbatu denak. Itzalduraz nabarmendurik erakusten du, gainera, bularraren eta gurutzaren arteko aldea. Osoago ageri dira beste batzuk, bularra edo hankak besterik ez dutela eskas, baina ez horren ongi kontserbatuak. Beste irudi batzuetan, puntuz itxuraturiko inguru-lerroen barnean tinta lauko pintura erantsi zuten bularraren edo gurutzaren ertzen arteko gune itxiak itxuratzen. Baten kasuan, marra bat erortzen da bizkarralderantz, gezi moduan.

Galeria nagusira itzuli eta 60 metro gehiago barnatu ondoren, hau da, sarreratik 170 metrotara, kobaren eskuinaldeko harria estaltzen duen estalagmita geruzaren gainean, margolanez eta grabatuz osaturiko multzo bat ageri da. Grabatu eta gorritz margoturiko uro bat nabarmentzen da hartan: metrotik gorako luzera du eta ikuslearen eskuinalderantz ditu zuzendurik begiak. Burua, adarrak barne, bizkarra, buztana eta ipurmamia hartu ditu

la entrada, también a izquierda y derecha de la prolongación de ésta en esa zona. Hay cuatro bastante completas, si bien la pintura se conserva en forma muy desigual. Alguna, como la mejor conservada, posee cabeza, orejas en V, cuello, pecho y dorso. Además lleva sombreada la zona entre pecho y cruz. Las hay más completas, a solo falta de pecho o de patas, pero peor conservadas. En otras a la línea de contorno hecha con puntos, como hemos dicho, se añade pintura a tinta plana para completar zonas limitadas del pecho o bandas cruciales. Hay una con una línea que desciende sobre su zona dorsal a modo de venablo.

Volviendo a la galería principal, y adentrándonos 60 metros más, es decir a 170 m de la entrada, sobre un manto estalagmítico que cubre la roca en el lado derecho de la cueva, hay un complejo de pintura y grabado, en el que puede distinguirse un uro grabado y pintado en rojo, de más de 1 m de longitud, que mira hacia la derecha del espectador. La pintura afecta a la cabeza con sus cuernos, al dorso, cola y nalga. El grabado, además de a las partes citadas, a la pata posterior y al



10. Areatzako uro grabatua.

10. Uro grabado de Arenaza.

margolanak. Aipaturiko aldeez gainera, atzeko hanka eta sabela definituak ditu grabatuak (10. irud.) Uro honen lepo eta buruaren gainean, beste animalia baten atzealdea ageri da grabaturik: abelgorri baten aurrean gaude seguruenik, eta aurreraxeago, grabaturik berau ere, horra, parez pare, zaldi baten aurrealdea.

Bi metro aurrerago, estalagmita geruza baten gainean, antropomorfo baten lerroak ageri zaizkigu grabaturik, burua, besoak eta behealdeko gorputz atalen muturrak erditik gora falta dituztela.

Azkenik, koban barrurago jo eta 260 bat metrotara, puntu gorri batzuk atzeman dira, lerrotan ordenatuak.

Madeleine aldiko eta ondoko garaietako mailak bereizi dira leizeko ezkaratzean. Behe Madeleine aldiko garaietakotzat jo ziren hasieran kobako irudiak; egun, ordea, zaharra-  
goak direla uste da.

vientre (fig. 10). Superpuesto a la cabeza y cuello de este uro hay un cuarto trasero grabado de otro animal, posiblemente un bóvido y delante un prótomo, también grabado, de caballo.

Dos metros más adelante, hay unas líneas que parecen representar un antropomorfo grabado sobre un manto estalagmítico, al que faltaría la cabeza, los brazos y más de la mitad distal de las extremidades inferiores.

Por fin, más adentro en la cueva, a unos 260 m de la entrada hay una serie de puntos rojos alineados.

En el vestíbulo de la cueva hay niveles Magdalenienses seguidos de otros posteriores. La cronología de las figuras, asignada anteriormente a un Magdaleniense Inferior, tiende hoy a ser considerada más antigua.

---

## Antoliña

(Gautegiz Arteaga, Bizkaia)

---

Disko gorri bat azaldu da sarrera txikiko koba honetan, galeria baten barneko hondoan. Indusketa lanak bideratu zituen han J. M. Barandiaranek 1923an eta M. Aguirre Ruiz de Gopegik 1995etik aurrera.

Gravette, Solutré eta Madeleine aldie-takotzat hartu dituzten materialak azaldu dira indusketa lanetan.

---

## Antoliña

(Gautegiz Arteaga, Bizkaia)

---

En esta cueva de boca reducida, donde excavó J. M. de Barandiaran en 1923 y M. Aguirre Rz. de Gopegui a partir de 1995, se ha hallado un disco rojo al fondo de una de las galerías.

Las excavaciones han proporcionado materiales que han sido asignados al Gravetiense, al Solutrense y al Magdaleniense.

---

## Santimamiñe

(Kortezubi, Bizkaia)

---

Koba edo leize honetan aurkitu zuten J. F. Bengoetxeak eta beste lagun batzuek Euskal Herriko haizuloetako artearen bigarren multzoa; 1916. urtean aurkitu zuten. T. Aranzadik, J. M. Barandiaranek eta E. Eguren bideratu zuten irudi multzo honi buruzko lehen azterketa, eta 1925ean argitaratu zen. Kapitulu zabalak eskaini zion J. M. Apellanizek 1982an. X. Gorrotxategik ahalegin horien berrikustea lan esanguratsua plazaratu zuen 2000. urtean, eta, azkenik, bertako hormetako artearen gaineko xehetasun garrantzitsuak egin zituzten C. González Sainzek eta R. Ruiz Idarragak 2010ean.

Indusketa-lan zabalak bideratu zituzten T. Aranzadik, J. M. Barandiaranek eta E. Eguren 1918. eta 1925. urteen bitartean, eta maila arkeologikoen segida garrantzitsua zehaztu: Aurignac alditik erromatarren garairaino luzatzen da. Gaur egun, indusketa-lanetan ari dira berriro, J. C. López Quintanaren gidaritzapean, eta, besteak beste, Madeleine aldiko mailak azaldu dira berriro ere.

---


## Santimamiñe

(Kortezubi, Bizkaia)

---

Es en esta cueva donde J. F. de Bengoetxea y unos compañeros suyos descubrieron el segundo conjunto de arte rupestre del País Vasco. El descubrimiento tuvo lugar en 1916. El primer estudio de las figuras fue realizado por T. de Aranzadi, J. M. de Barandiaran y E. de Eguren y publicado en 1925. J. M. Apellániz le dedica un amplio capítulo en su obra de 1982. En 2000, X. Gorrotxategi ha publicado una revisión extensa y por fin en 2010 C. González Sainz y R. Ruiz Idarra hacen una serie de precisiones a su arte parietal.

T. de Aranzadi, J. M. de Barandiaran y E. de Eguren llevaron a cabo una amplia excavación entre 1918 y 1926, en la que apareció una secuencia importante de niveles que van desde el Auriñaciense hasta época romana. Actualmente está siendo excavada de nuevo por J. C. López Quintana y han sido descubiertos de nuevo, entre otros, niveles Magdalenienses.



11. Santimamiñeko kobako sarrera.

11. Entrada a la cueva de Santimamiñe.

Koba Kortezubiko Basondo gunean dago, Ereñusarre mendiaren oinean. Kareharri urgoniarren tartean sortua da, eta bertatik hurbil dago Santimamiñe ermita; hortik datorkio izena kobari (11. irud.).

Oso luzea eta berezko edertasun handikoa da koba, ugari baitira estaltzen duten kareharrizko formazioak. Ezkaratz luzea igaro eta sarreratik 40 metro ingurura zabalitzen den areto batean ageri dira aurreneko irudi segurua eta koban grafismoak ageri diren ganbara nagusirako sarbidea.

Zorutik 2,2 metro gora azaltzen da aurreneko irudi hori. Aker bat da, kolore beltzean margotua. Burua, adarrak, bizkarra, buztana eta lepoa, bularra ondotik duela, kontserbatu dira, eta ageri du, era berean, sabelaren atzealdea itxuratuko zuen modelatua, hiruki baten taxukoa.

La cueva, abierta en calizas urgonianas, está situada en Basondo (Kortezubi), al pie del monte Ereñusarre y cerca de la ermita de S. Mamés, de donde recibe el nombre (fig. 11).

La cueva es muy larga y de gran belleza natural, por las numerosas formaciones calcáreas que la recubren. Tras el largo vestíbulo, en una sala sita a unos 40 m de la entrada, se encuentra la primera figura segura y el acceso a la cámara principal de grafismos de la cueva.

Esta primera figura segura se encuentra a 2,2 m de altura sobre el suelo. Se trata de una cabra macho, pintada en negro, en la que se conserva la cabeza, los cuernos, el dorso, la cola y el cuello, seguido del pecho, así como un modelado triangular en la zona posterior del vientre.



12. Santimamiñeko ganbarako irudi panel nagusiaren aldea.

12. Zona del panel principal de figuras de la cámara de Santimamiñe.

Arestian aipatu dugun ganbararako sarrabidearen aurrean dago irudi hori.

Sarreratik 60 metro tara dagoen ganbara txiki horretan dago Santimamiñeko irudi multzo garrantzitsuena (12. irud.).

Aurreganbara txiki bat du aurretik ganbara horrek, eta gaur egun eroso igo gaitzek metalazko eskailera batean gora, baina iristen zaila zen haizuloetako arte adierazpenak lehenengoz hauteman ziren garaian. Zarrapoka igo beharra zegoen, ondoko estalagmita zutabearen goiti.

Luzanga da aurreganbara, 4 metro eskas luze eta 2 baino gehixeago zabal. Bi metroko altuera du. Hamabi irudi ageri dira bertan guztira, sarreraren ezker aldeko horman gehienak. Marra batzuk ageri dira aurrenik, pintura beltzean itxuratuak (heinean batean estalita daude, egun aurreganbararako sarrera ixten duen atearen bisagra dela eta). Hiru bisonte ageri dira hurrengo, beltzean pintatuak horiek ere. Ez dira osorik azaltzen, eta gorputzaren aurrealdea dute bereziki eskas (13. irud.).

Horma berean aurreraxeago zaldi bat ageri da, beltzez margotua; osorik azaltzen


Esta figura se encuentra frente al acceso a la cámara antes mencionada.

En esta pequeña cámara situada a unos 60 metros de la entrada se encuentra el grupo principal de figuras de Santimamiñe (fig. 12).

A esta cámara, precedida de una antecámara, se accede hoy ascendiendo cómodamente mediante una escalera metálica, pero era difícil acceder cuando se descubrieron las manifestaciones rupestres. Había que hacerlo trepando por una columna estalagmítica contigua.

La antecámara es alargada y tiene poco más de 4 m de longitud por algo más de 2 de anchura. Su altura es de unos 2 m. Contiene una docena de representaciones, situadas la mayor parte en la pared izquierda según se entra. Comienzan por una serie de trazos de pintura negra, hoy cubiertos parcialmente por la gran bisagra de la puerta que cierra el acceso a la antecámara. Siguen tres bisontes pintados en negro. Los tres están incompletos, a falta principalmente de la parte anterior del cuerpo (fig. 13).

Un poco más adelante en la misma pared hay un caballo pintado en negro, casi



13. Santimamiñeko aurreganbarako bisonte osatu gabea.
13. Bisonte incompleto de la antecámara de Santimamiñe.

zaigu ia-ia, aurreko gorputz atalak baizik ez dituela falta. Beste bi zaldi datoz ondotik, horman grabaturik. Burua ageri du lehenak, belarri, lepo eta gurutzealderik gabe ordea. Bigarrena larriki kaltetu du instalazio elektrikoak, eta, egun, burua eta bizkar eta sabel lerroak baizik ez ditu ageri. T. Aranzadik, J. M. Barandiaranek eta E. Egurennek argitara eman zuten lanean (arestian aipatu dugu azterketa hori), bizkar lerro osoa, buztana eta atzeko hanka bat ere adierazi ziren.

Aipaturiko argitalpen horretan, bisonte baten irudi osoa ageri zen zaldi horren behealdean: osorik galdua dugu egun ia-ia.

Pareko horman, aurreganbara berberetan, bi bisonte ageri dira beltzez margotuak. Osorik xamar dago sarreratik hurbilen ageri dena, buztana, hanken muturrak eta aurpegia baizik ez dituela eskas. Adar bat ageri du, bai eta kimak, bizkarraldearen gainean zeharkaturiko marra txikien bitartez itxuratuak, eta, konkorraren atzealdeko abiapuntutik behera, barnealdearen modelatu trianguluarra ere. Osorik ageri da bigarren bisontea, baina inguruan diren estalagmitek kalte egin diote.

Angeluzuzenaren itxura du ganbarak, 4 x 3 metro koadroko eremua hartzen du, eta 3,5 metro inguru da gora. Bertan dago, hainbat aldetan banaturik, kobako irudi multzo opa-roena. Horma-atel bat nabarmentzen da beste

completo, a falta de la extremidad anterior, y otros dos caballos grabados. El primero lleva la cabeza sin las orejas, el cuello y la zona de la cruz. El segundo ha sido dañado gravemente por la instalación eléctrica y conserva hoy solamente la cabeza y parte de las líneas dorsal y ventral. En la publicación citada de T. de Aranzadi, J. M. de Barandiaran y E. de Eguren se indica toda la línea dorsal, la cola y una pata posterior.

Bajo este caballo, en la publicación citada, se representa un bisonte completo, que ha desaparecido casi del todo.

En la pared de enfrente, en la misma antecámara, hay dos bisontes pintados en negro. El más próximo a la entrada está bastante completo, a falta de la cola, los extremos distales de las patas y la cara. Lleva un cuerno, una crinera hecha con cortos trazos transversos a la línea dorsal y un modelado triangular bajo el arranque posterior de la giba. El segundo bisonte está completo, pero actualmente dañado por el crecimiento estalagmítico existente en la zona.

La cámara, de forma rectangular, de 4 x 3 m y 3.5 de altura, encierra el conjunto más numeroso de figuras de la cueva, distribuidas en varias zonas de la misma. Sobresale por su espectacularidad un pa-



14. Santimamiñeko ganbarako panel nagusiko bisonteetako bi.

14. Dos de los bisontes del panel principal de la cámara de Santimamiñe.

guztien gaintetik, bere ikusgarritasunagatik: zaldi bat eta bisonte batzuk bereizten dira hartan, kolore beltzean landuak guztiak (12. irud.).

Baina ganbara honetan badira beste irudi asko, horren ikusgarriro aurkeztuak ez diren arren.

Sarreran bertan, ezker aldean eta zorua-  
ren ondoan, kono itxurako estalagmita es-  
taldura baten gainean, ageri da aurreneko  
multzoa. Bost bisonte dira, grabatuak guz-  
tiak; osorik xamar ageri dira haietako hiru,  
eta osatu gabe beste biak. Beste bisonte bat  
ageri da ondoren, beltzez margotua eta ada-  
rretan eta kimen gainean grabatuak agerian.  
Azkenean, beste bisonte bat datorkigu ondo-  
tik, osatu gabe eta beltzez margotua.

Ganbararen ezker aldeko goi maila ba-  
tean ageri da multzo nagusia. Bederatzi bi-  
sonte eta zaldi bat, beltzez pintatuak guztiak.  
Osorik ageri dira bederatzi bisonteetako lau.  
Modelaturik ageri dute barnealdea, esku-  
inaldean eta zaldiaren gaintetik, berari begira,  
ageri diren biak bereziki. Barnea modela-  
turik, baina ez horren nabarmen, ageri dira  
orobat beste bi zaldiak, zaldiaren behealdean  
aurkeztutakoak (14. irud.). Bi buztan ageri  
ditu, egindako zuzenketak direla medio, irudi  
guztien arteko maila gorenean, eskuinaldean  
dagoenak. Buztana ez ezik, ipurgainaren alde  
ere landu zuten zuzenketa lan haietan.

Egun bi adarrez ageri den bisonte hori

nel donde se aprecian nítidamente varios bisontes y un caballo, todos ellos pintados en negro (fig. 12).

Pero hay en esta cámara muchas más fi-  
guras, aunque no se presenten en forma tan  
espectacular.

El primer conjunto se encuentra en la misma entrada a la izquierda, junto al suelo, sobre una colada estalagmítica en forma de cono. Se trata de 5 bisontes grabados, 3 de ellos bastante completos, y 2 incompletos, otro pintado en negro y con algo de grabado en cuernos y parte de la crinera y otro por fin pintado en negro, incompleto.

El grupo principal de la cámara, situado en una zona elevada a la izquierda de la entrada a la misma, hay 9 bisontes y 1 caballo, todos pintados en negro. De los 9 bisontes 4 se encuentran completos. En ellos se ha modelado también el interior, en especial en los dos que se encuentran a la derecha y por encima del caballo, mirando hacia él. También en los otros dos, aunque en menor medida, situados bajo el caballo (fig. 14). El situado más a la derecha y más elevado de los cuatro lleva dos colas, producto de una rectificación o corrección. Esta rectificación no afecta solamente a la cola, sino también a la parte próxima de la grupa.

Este mismo bisonte, que hoy aparece con dos cuernos, fue representado en la pri-

bera adar bakar batekin aurkeztu zuten T. Aranzadik, J.M. Barandiaranek eta E. Egurenk argitara eman zuten aurreneko lanean. Adar bakarrak ageri da orobat F. J. Vertusek 1955 aldean egin zuen argazkian. Lan berri-berria da, beraz, bigarren adarra, gerora egindako eranskina. J. M. Barandiaran ohartu zen aurreneko aldiz eranskin horretaz, eta 1976an hala jakinarazi zuen.

Gainerako bisonteak askoz ere egoera txarragoan kontserbatu dira, estalagmita kortiken hazkuntza dela medio, eta osatu gabeko siluetak baizik ez dira hein handian. Bizkarrez bizkar ageri dira, erdi zutik edo, zaldiauren aurretik egokituak direnak. Eskuinaldekoak atzealdeak baizik ez du ikusgai. Osoago dago ezkerrekoa, baina hankak falta ditu. Horma-atalean behean ageri den irudiak, ezkerrean eta oso egoera txarrean dagoenak, silueta osatu xamarra eskaintzen du, nahiz eta aurreko hankarik ez duen.

Beltzean landu zuten horma-atal nagusi honetako zaldia; zartaturik ageri du hein handian gurutzaldea eta bekoki-sudurren alboko perfila irudikatzen dituen aldeak, baina osorik ageri da, hanken muturrak edo apoak izan ezik (15. irud.). Ekainekoen antzera (aurrerago ikusiko ditugu beste horiek), hipertrofia nabaria ageri du zaldi honek atzealdean.

mera publicación de T. de Aranzadi, J. M. de Barandiaran y E. de Eguren con uno solo. Hay también una fotografía de F. J. Vertus, tomada hacia 1955, en que aparece con un cuerno. El segundo cuerno es por tanto un añadido posterior, reciente. Fue J. M. de Barandiaran quien se da primeramente cuenta de este añadido, como lo hace saber en 1976.

Los restantes bisontes, mucho peor conservados, en parte por crecimiento de costras estalagmíticas, son simples siluetas incompletas. Los situados delante del caballo, están enfrentados por el dorso y en posición subvertical. El de la derecha muestra solamente la parte posterior. El de la izquierda está más completo, a falta de las patas. La inferior de todas las figuras del panel, situada a la izquierda, mal conservada, es una silueta bastante completa a falta de las patas anteriores.

El caballo de este panel principal, pintado también en negro y desconchado parcialmente en la zona de la cruz, así como en el perfil frontonasal, está completo, a falta de los extremos distales de las patas o cascos (fig. 15). Este caballo, como los de Ekain, que veremos más adelante, presenta una clara hipertrofia en la zona posterior.



15. Santimamiñeko ganbarako panel nagusiko zaldia.

15. Caballo del panel principal de la cámara de Santimamiñe.



16. Santimamiñeko ganbarako hartza.
16. Oso de la cámara de Santimamiñe.



Ganbaran barrena aurrera egin eta lau irudi ageri zaizkigu ezkerrean: zaldi bat, egun oso hondatua, hartz bat (16. irud.), orein buru bat eta ahuntz bat. Interpretatzen horren errazak ez diren marra batzuk ere ageri dira irudi horien ondoan. Beltzez margotuak dira irudi eta marra guztiak.

Hartzak egungo hartz nabarraren irudia ageri du peto-peto, eta osorik dago, bi hankak pare bakoitzean. Ongi markatua ageri du sexua. Eraso bat jaso du irudi honek ere berriki: irudiaren aurreko argazkietan ageri ez zen begi zirkular bat erantsi diote.

Hartzaren atzean ageri da, ondoz ondo, oreina. Animalia burua eta adarrak margotu zituzten, bai eta belarriak, lepoa eta bularraren goialdea ere. Orein horren behealdean aker baten irudia ageri da, gorantz begira. Burua eta bi adarrak, lepoa, bularra eta bizkarraren hasiera ageri ditu.

Aurreko multzotik metro erdia eskuinalderantz jo eta estalagmita multzo baten gainean, horra beste hiru bisonte, beltzean margotuak. Zutik daude hirurak. Gaineko biak beheiti begira eta behekoa goiti. Osorik ageri dira, bat izan ezik, ez baitu bururik. Xut eta arkuak eratuz ageri dute hirurek buztan. Osoago ageri denak, goi eskuinaldekoak, eskaintzen digu xehetasun gehien: burua eta bi adarrak, buru puska ederra, konkorraren

Avanzando hacia el interior de la cámara y en el lado izquierdo hay 4 figuras que representan un caballo, actualmente muy degradado, un oso (fig. 16), una cabeza de ciervo, una cabra y un conjunto de líneas de más difícil interpretación. Todas ellas están pintadas en negro.

El oso, que representa al oso pardo actual, está completo, con dos patas por par. Lleva bien marcado el sexo. También esta figura ha sufrido una agresión reciente. Se le ha añadido un ojo circular que no estaba en las fotografías anteriores de esta figura.

Inmediatamente detrás del oso se encuentra el ciervo. Se ha representado del animal, la cabeza con la cuerna, las orejas, el cuello y el comienzo del pecho. Bajo esta figura de ciervo hay otra de cabra macho dirigida hacia arriba. De la cabra se ha representado la cabeza con los dos cuernos, el cuello, el pecho y comienzo anterior del dorso.

A medio metro a la derecha del conjunto anterior, sobre una colada estalagmítica, hay 3 bisontes pintados en negro. Los tres están en posición vertical. Los dos superiores mirando hacia abajo y el inferior mirando hacia arriba. Están completos salvo uno de ellos, que carece de cabeza. Los tres llevan la cola alzada y arqueada. El más completo, el superior derecho, es el que más detalles lleva. Así la cabeza con los dos cuernos, un gro-



17. Bisonte bertikalak, Santimamiñeko ganbarako estalagmita estalduraren gainean.

17. Bisontes verticales sobre una colada estalagmítica de la cámara de Santimamiñe.

atzea eta aurrealdeko abiapuntuak, kokotsa eta ile-adatsa lepotik eta bularraldetik behera; barne modulatu batek mugatzen du enborrharen aurrealdeko ile bolumen ugaria. Gainera, aurreko bi hankak eta atzeko hanka bat ageri ditu (17. irud.).

Ganbarako gainerako aldeetan badira hiru bisonte eta hiru ahuntz gehiago, bai eta ongi zehaztu ezin den abelgorri bat eta beste pintura trazu batzuk ere. Beltzez pintatuak dira irudi horiek guztiak.

Ganbara eta aurreganbarako multzo haue-tatik kanpora, beste irudi batzuk azaldu dira galeria nagusiaren hondoan, sarreratik 100 metro pasa egin eta gero. Beltzez pintatuak dira eta haietako hiru ditugu bereziki aipagarri.

Animalia zehazten zail baten burua eta lepoa ditugu, alde batetik. Estalagmita irtengune natural bati loturik ageri dira. Animalia-

ren sor notorio en la cabeza, arranque anterior y posterior de la giba, barbilla y melena bajo el cuello y pecho y un modelado interno que limita la masa de abundante pelo de la parte anterior del tronco. Lleva también dos patas delanteras y una trasera (fig. 17).

En el resto de la cámara quedan tres bisontes más y tres cabras, además de un bóvido no bien definido y varios trazos de pintura. Todas estas figuras están pintadas también en negro.

Fuera de estos dos conjuntos, cámara y antecámara, y avanzando por la galería principal hacia el fondo, a poco más de 100 m de la entrada, se han descubierto nuevas figuras pintadas también en negro, entre las que destacan tres.

Por un lado una cabeza y cuello de animal de difícil determinación, unidos a un saliente estalagmítico natural que podía

enborra eta atalak eratuko zituen irtengune naturalak.

Zaldi baten irudia azaltzen zaigu, bestetik, burua, lepoa –kima-lerroa guztiz zehaztua–, bularra eta aurreko hanka ongi definituak. Galduak dira ia-ia gainerako aldeak, zaldia margotu zen euskarriko estalagmita geruza mehea zartatu eta ezkatatu egin delako edo.

Bisonte oso bat eskaintzen digu hirugarren irudiak, kobako azkenekoak (gaur egun dakigunaren arabera, jakina). Lausoturik edo ageri du burua, harria berez hondatzearen eraginez. Biziki deigarriak dira hankak, bina alde bakoitzeko, oso luzeak baitira.

Berrogeita hamar ere badira guztira Santimamiñeko irudiak. Bisontea da han espezie irudikatuen. Beltzez pintatuak dira irudi gehienak. Gutxi dira grabatuak. Irudi osoen neurriak ez du metro erditik gora egiten. Ganbarako sarrera nagusiaren eskuinaldeko bi bisontek dira handienak, 60 cm ingurukoak.

Estiloari erreparatutakoan, denboran aurteratu xamar batekotzat jo genitzake irudi hauek: Erdi Madeleine aldian eginak direla esan genezake.

Santimamiñe ermitan bada koba honen erreplika birtual bat, hain zuzen ere koba dagoen mendiaren beheko aldean.

conformar el cuerpo del animal con sus extremidades.

Por otro caballo del que se ha representado la cabeza, el cuello con la crinera bien indicada, el pecho y pata anterior. El resto está muy perdido, en buena parte por el desconchamiento de la fina capa estalagmítica sobre la que está pintado.

La tercera figura y última de la cueva, según nuestros conocimientos actuales, es un bisonte completo, con la cabeza hoy poco definida por deterioro natural. Llamen la atención las patas, dos por par, extremadamente largas.

En conjunto las figuras de Santimamiñe llegan al medio centenar. La especie más representada es el bisonte. La mayoría de las figuras están pintadas en negro. Las grabadas son pocas. Los tamaños de las figuras completas no alcanzan el medio metro. Las más grandes son los dos bisontes de la derecha del panel principal de la cámara, que miden en torno a 60 cm.

Por su estilo pueden considerarse bastante avanzadas y habrían sido realizadas probablemente hacia el Magdaleniense Medio.

De esta cueva existe una réplica virtual en la ermita de S. Mamés, que se encuentra en la base de la montaña donde se sitúa la cueva.

---

## Lumentxa

(Lekeitio, Bizkaia)

---

Bizkaiko haitzuloetan aurkitutako azken artelana D. Garatek eta J. Ríošek 2012an Lumentxako koban topatu zituzten irudiak

---

## Lumentxa

(Lekeitio, Bizkaia)

---

El último hallazgo de arte rupestre en Bizkaia lo constituye el descubrimiento, en 2012, de nuevas figuras en la cueva de Lumentxa por

dira. Urte hartan berean argitaratu zuten arkeikuntza horri buruzko azterlana.

Lumentxako koba Lekeition dago, eta 1921. urtetik ezaguna da bertako aztarnategi arkeologikoa. 1920. urteetako hamarkadaren bukaeran, indusketa-lanak bideratu zituzten han T. Aranzadik eta J. M. Barandiaranek, eta berriro ekin zien ikertzaile ataundarrak lan haiei 1963-1964 bitartean, arriskuan baitzen kontserbazioa, bisitariek askotan ez baitzuten lekua behar bezala errespetatzen. Esaten ari garenaren neurriaren berri ematen digute egun ere bertako hormetan ugari ikus daitezkeen graffitiak. Madeleine aldiko mailak, bukaera aldekoak batez ere, zehaztu ziren indusketa lan haietan, eta okre zati ugari eta hematites xafla bat agertu ziren, azken horretan hiru zaldi grabaturik zeudela.

Eroritako harri bloke handi baten gainean ageri dira Lumentxan topaturiko irudi paleolitikoak. Lau metro luze eta bi metro eta erdi gora egiten du harri horrek. Bi bisonte eta zaldi bat ageri dira, gorritz margotuak guztiak. Graffiti modernoak ere ageri dira bloke honetan, aipaturiko irudien gainean haietako batzuk.

Osorik ageri dira bi bisonteak. Aipaturiko blokearen ertza baliatu zuten haien bizkar lerroa, hau da, haien konkorra, itxuratzeko, geroago Ekaingo santutegi handiaren kasuan ere ikusiko dugun moduan.

Zaldi baten zatia ageri da, bestalde, bisonte horietako baten barruan. Burua eta kima aldea ageri ditu.

Marra gorri batzuk azaldu dira koba barruan, irudietatik ez oso urrun.

parte de D. Garate y J. Ríos en la célebre cueva de Lumentxa. La publicación data del mismo año.

La cueva de Lumentxa, sita en Lekeitio, es conocida desde 1921 por su yacimiento arqueológico, que fue excavado por T. de Aranzadi y J. M. de Barandiaran al final de los años 20 y posteriormente de nuevo por este último investigador en 1963-1964 a causa del riesgo que presentaba su conservación, debido a las numerosas visitas poco respetuosas con el sitio en muchas ocasiones. Los numerosos grafiti extendidos por sus paredes muestran lo que decimos. Las excavaciones citadas mostraron la existencia de niveles Magdalenenses, en especial de la última fase de este período, en el que aparecieron abundantes fragmentos de ocre y una plaqueta de hematites con tres caballos grabados.

Las figuras paleolíticas descubiertas se encuentran sobre un gran bloque caído, de 4 metros de longitud por dos y medio de altura. Estas figuras consisten en dos bisontes y un caballo, todos ellos pintados en rojo. Este mismo bloque contiene también grafiti, algunos de los cuales se superponen a las figuras indicadas.

Los dos bisontes están completos y para la realización de su dorso se ha aprovechado el borde del bloque mencionado, que representa la giba, a la manera como veremos más abajo en el gran santuario de Ekain.

Dentro de uno de los bisontes se representó parcialmente un caballo. Consta de cabeza y línea de crinera.

En otras zonas próximas de la cueva hay algunas líneas rojas más.

18. Askondoko  
kobako irudia.

18. Figura de la  
cueva de Askondo.



## Askondo

(Mañaria, Bizkaia)

Askondon ere orain dela gutxi, 2011n hain zuzen ere, aurkitu dira haitzuloetako artearen lekukotasunak; A. Ugartek, J. Ríosek eta D. Garatek zuzendu zituzten lanak. 2012an argitaratu zituzten D. Garatek eta J. Ríosek lan haien emaitzak.

Sarrerari harrobi batek eragin badio ere, 300 metroko bidea eskaintzen du koba honen barnealdeak. Orban gorri ahul batzuk ageri dira ezkaratzaren sarreran. Aurreraxeago, ilunpeak erdi harturiko alde batean, honako irudi hauek zehaztu dira: gorritz margoturiko bost zaldi, grabaturiko zaldi bat, gorritz margoturiko esku bat, marra paralelo eta orban gorri batzuk, eta grabaturiko marra batzuk.

Irudiak zailak dira ikusten eta bitarteko tekniko bereziak bideratu behar izan dira beregin eta ikusi ahal izateko (18. irud.).

Horman iltzaturiko hezur bat ere bereizi ahal izan da, egungo zorutik bi metro gora. Altxerriko goiko galerian eta Astigarragako leizean ageri direnen antzekoa da, horrelakorik ageri duten aztarnategi hurbilenak aipatzeagatik.

Aurkitzaileen arabera, Bizkaiko haitzuloe-tako arteak orain arte eskaini duen multzo za-

## Askondo

(Mañaria, Bizkaia)

El hallazgo de evidencias de arte rupestre en Askondo es también reciente, ya que data de 2011 y fue realizado por parte de A. Ugarte, J. Ríos y D. Garate. El resultado lo han publicado D. Garate y J. Ríos en 2012.

Se trata de una cueva afectada en su entrada por una cantera, pero con recorrido de unos 300 m. A la entrada al vestíbulo existe una serie de manchas rojas muy desvaídas. Algo más adelante, pero aun en zona de semipenumbra, los investigadores citados han determinado cinco caballos pintados en rojo, un caballo grabado, una mano pintada en rojo, otros trazos paralelos y manchas también rojas y unos pocos trazos grabados.

Las figuras son muy difíciles de ver y solo la aplicación de medios técnicos especiales y su restitución ulterior permite observar lo representado (fig. 18).

Ha sido detectado también un hueso clavado en la pared, a dos metros del suelo actual, como se conoce en la galería superior de Altxerri y en la cueva de Astigarraga, por citar los yacimientos más próximos en que esto ocurre.

harrena da Askondokoa, Venta Laperrakoaren ondotik. Gravette aldira eramango gintuzkete eginiko aurkikuntzek.

Bi gunetan bideratu dituzte aipaturiko autoreek indusketa-lanak, pintura-lanen ondoan, eta Goi Paleolitoaren hasierako mailak bereizi dituzte, besteak beste.

Para los descubridores, sería el conjunto rupestre más antiguo de Bizkaia después de Venta Laperra, pudiendo ser asignado al Gravetiense.

Los autores citados han practicado una excavación en dos puntos, a la altura de las pinturas, hallando, entre otros, niveles del Paleolítico Superior inicial.

---

## Praileaitz

(Deba, Gipuzkoa)

---

Praileaitzeko margolanak orbanak, marrak eta puntuak dira, gorritz pintatuak guztiak. Ez da leize horretan inolako irudirik ageri.

Deba ibaiaren eskuinaldeko mazela batean dago leizea, egungo itsasbazterretik 3 kilometrotara eta ibaiaren ibilgutik 50 bat metrotara. Hiruki itxurakoa da sarrera, 2,5 m zabal eta 6 m gora. 34 m<sup>2</sup>-ko ezkaratza zabaltzen da atariaren ondotik, eta 10 metroko garaiera iristen du barrualde horrek. Ezkaratzaren hondoan, garaieran metro bete eskas iristen duen pasabide bat abiatzen da, 7 m-ko diametro eta 2 m-ko altuera dituen areto zirkular batera iritsi arteraino. Beste areto txikiago bat zabaltzen da haren ostean, eta sigi-saga luzatzen da ondoren galeria gero eta estuago, gero eta estuago.

Margolanak X. Peñalverrek 2000. urteetik aurrera zuzenduriko indusketa-lanetan azaldu dira han eta hemen, leizearen erdialdeko ibilbidean eta kopuru txikian betiere. Indusketa lan horien ondorioz, Behe Madeleine aldiko multzo litiko bikaina azaldu zen, harri zulatuak. 2006an azaldu ziren margolanak. Guztiz aipagarriak dira, haien

---

## Praileaitz

(Deba, Gipuzkoa)

---

Las pinturas de Praileaitz se reducen a unas manchas, trazos y puntos pintados en rojo. No existe representación figurativa alguna.

La cueva se abre en una ladera del lado derecho del río Deba, a 3 km de la costa actual y a unos 50 m sobre el cauce de este río. Muestra una entrada triangular de 2.5 m de ancho y 6 m de alto. Esta entrada da paso a un vestíbulo de unos 34 m<sup>2</sup> de amplitud, que alcanza una altura de unos 10 m. Después de este vestíbulo se inicia un pasillo de un metro escaso de altura, que llega a una sala circular de unos 7 m de diámetro y 2 m de altura en su zona central, seguida de otra más adelante. La galería continúa en forma sinuosa estrechándose cada vez más.

Las escasas pinturas, situadas hacia la parte media del recorrido de la cueva, se encontraron en el curso de las excavaciones que se están llevando a cabo en esta cueva, dirigidas por X. Peñalver desde 2000. Estas excavaciones proporcionaron un conjunto notable de piezas líticas perforadas pertenecientes al Magdaleniense Inferior. Las pinturas fueron descubiertas en 2006. Entre ellas



19. Puntu gorriak Praileaitz leizean.  
19. Puntos rojos de la cueva de Praileaitz.

artetik, hatzez marrazturiko puntu gorriak, bakan nahiz sailetan ageri direnak. Sailetan edo seriean ageri direnak puntuak baizik ez dira batzuetan, eta puntuak eta marrak, aldizka, besteetan (19. irud.).

Estalagmiten gainean ageri dira serie horiek.

Madeleine aldiaren aurreko garai bateko-tzat joak diren arren, orain arte ezin izan da data hori guztiz egiaztatu.

destacan algunos puntos rojos, bien aislados o bien seriados, trazados con los dedos. Los seriados o bien están compuestos de sólo puntos o bien combinan puntos con líneas (fig. 19).

Estas series se encuentran sobre concreciones estalagmíticas.

Se les ha atribuido una edad premagdaleniense, pero no hay seguridad en esa datación.

---

## Ekain (Deba, Gipuzkoa)

A. Albizurik eta R. Rezabalek aurkitu zuten 1969an Ekaingo haitzulo multzoa. Ordura arte, leize-zulo txiki bat baizik ez zen alde hartan ezagutzen. Handik abiatu eta galeria berri luze bat topatu zuten aipaturiko miaztaileek; oso sarbide zailekoa zen, eta hartan aurrera egin ondoren topatu zituzten haitzuloetako arte multzoak. Paleolito Arotik, inor ez zen seguruenik galeria hartan barrena ibili.

Aurkitzaileek berehala eman zieten J. M. Barandiarani eta J. Altunari aurkitutakoaren berri, eta bi egun geroago bertaratu ginen

---

## Ekain (Deba, Gipuzkoa)

El conjunto rupestre de Ekain fue descubierto por A. Albizuri y R. Rezabal en 1969. En esta zona solamente se conocía un pequeño covacho. Desde él los citados prospectores descubrieron una nueva y larga galería, cuyo acceso era muy difícil, y en ella, los conjuntos rupestres. Nadie desde épocas probablemente paleolíticas había penetrado en esa galería.

Comunicado inmediatamente el hallazgo por parte de los descubridores a J. M. de Barandiaran y a J. Altuna, acudimos al lugar



20. Ekaingo leizearen kokapena, Sastarrain haranean.

20. Situación de la cueva de Ekain en el valle de Sastarrain.

aurkikuntza egiazatzeko eta aztarnategiaren kontserbazioari begira hartu beharreko neurriak hartzeko. Bi egun geroago, aztarnategiaren sarrera itxi zen ate egoki batekin. Orduan baizik ez zitzairen hedabideei aurkikuntzaren berri jakinarazi. Horrexegatik da Ekain Europako haitzuloetako arte osoan ondoen kontserbatu den santutegietako bat.

Egun batzuk geroago ekin genion irudiak aztertzeari, eta 1969ko urte hartan berean argitaratu zuten J. M. Barandiaranek eta J. Altunak Ekaingo haitzuloetako arteari buruzko lehen lana. Urte batzuk geroago, 1978an hain zuzen ere, bigarren azterlana argitaratu zuten J. Altunak eta J. M. Apellanizek, eta 1996an argitaratu zuen J. Altunak beste hirugarren bat, Thorbecke argitaletxe alemaniarrak Europako haitzuloetako arteari eskainiriko obra baten barruan. Berriki, 2008an, leize honen erreplika prestatzeko lanen ondorioz eginiko aurkikuntza berri garrantzitsu batzuei buruzko lana argitaratu dute J. Altunak eta K. Mariezkurrenak. Sastarrain haranean, Beliosorreka eta Goltzibar erreken elkargunean, irekitzen da leizea (20. irud.). Zestoatik iristen da errazen bertara, eta alde hartan eraiki eta itxuratu da leizearen erreplika.

Koban sarreran bada Barandiaranek

dos días más tarde para certificar el hallazgo y tomar las medidas oportunas para su conservación. Dos después tarde una puerta adecuada cerraba la entrada al recinto. Solamente entonces se dio cuenta del hallazgo a la prensa. De ahí que Ekain sea uno de los santuarios mejor conservados de todo el arte rupestre europeo.

Días más tarde iniciamos el estudio de las representaciones y el mismo año 1969 J. M. de Barandiaran y J. Altuna publicaban el primer trabajo sobre el arte rupestre de Ekain. Posteriormente en 1978 se publicó un segundo por parte de J. Altuna y J. M. Apellániz y en 1996 J. Altuna un tercero en una de las obras que la editorial alemana Thorbecke ha dedicado al arte rupestre europeo. Últimamente en 2008 J. Altuna y K. Mariezkurrena han publicado una serie importante de nuevos hallazgos descubiertos a raíz de la realización de la réplica de esta cueva. La cueva se abre al valle de Sastarrain en la confluencia de las regatas Beliosorreka y Goltzibar (fig. 20). El acceso más cómodo es desde Zestoa, donde se ha realizado además una réplica de la misma.

A la entrada de la cueva existe un yacimiento arqueológico excavado por Baran-



21. Ekaingo margolanetarako sarrera galeria.

21. Galería de entrada a las pinturas de Ekain.



1969 eta 1972 bitartean, Altunak 1973 eta 1975 bitartean, eta Altunak berriro, 2008 eta 2011 bitartean, induskaturiko aztarnategi arkeologiko bat. Behe, Erdi eta Goi Madeleine aldietako mailak azaldu dira hartan, besteak beste. Goi Madeleine aldikoa dugu basaker, orein eta zaldi banaren irudiak ageri dituen plaketa, irudi guztiak grabatuak. Erdi Madeleine aldikoa dugu, berriz, hegazti baten inguru xedarratuaren irudia, indusketa-lan berrienetako batean azaldu zena (2008).


Txikia zen leizeko ahoa edo sarre-  
ra: 2,20 m zabal, oinaldean, eta 2,20 m gora. Ezkerralderantz, 12 metroko luzerako eta 2 metro eta erdiko zabalerako galeria txiki bati egiten zion sarrera. Horixe zen 1969ra arte ezaguna zena. Urte hartan aurkitu zuten galeria berria: hara iristeko arrastaka ibili beharra zen aurrenik eta zarrapoka edo katamiauka ondoren, 17 metroko bidean barrena, zutik jartzeko aukera berriro eduki arte. Gune hartatik abiatzen da galeria edo tunel estu sigisagatsu bat (Erdibidea), guztiarekin ere zutik ibiltzeko aukera eskaintzen duena. Hogei bat metro da luze. Puntu horretan hasten da hedatzen, areto zabalagoak irekiz (Erdialdea), eta hor hasten dira irudiak agertzen (21. irud.).

Leku horretatik ezkerralderantz, galeria labur bat abiatzen da (Auntzei), 18 bat metro

diaran entre 1969 y 1972, por Altuna entre 1973 y 1975 y nuevamente por éste entre 2008 y 2011. En él han aparecido, entre otros, niveles pertenecientes al Magdalenense Inferior, Medio y Superior. En éste último apareció una plaqueta grabada con las representaciones de una cabra montés macho, un ciervo y un caballo. En el Magdalenense Medio, en las excavaciones más recientes (en 2008), apareció un contorno recortado que representa un ave.

La cueva tenía una pequeña entrada 2.20 m de anchura en la base y 2.20 de alto. Daba acceso hacia la izquierda a una pequeña galería de 12 m de longitud por 2 m de anchura media. Es lo único que se conocía hasta 1969. Entonces se descubrió la nueva galería, para llegar a la cual había que arrastrarse primero y gatear después durante 17 m hasta poder incorporarse. A partir de este punto continúa un túnel o galería sinuosa y estrecha (Erdibide), pero en la que se puede caminar de pie. Mide unos 20 m de longitud. En este punto se ensancha hacia espacios más amplios (Erdialde) y aquí comienzan las representaciones (fig. 21).

Desde este punto parte una galería corta (Auntzei) de unos 18 m hacia la iz-



22. Zaldi burua, Ekain.

22. Cabeza de caballo de Ekain.

guztira, eta bitan banatzen da orduan galeria nagusia, 40 m inguruko galeria itsu bat ezker-ralderantz zabalduz, eta beste galeria luze bat, 100 bat metrokoa, eskuinalderantz eskainiz. Irudiak ageri dira haietan guztietan.

Grafismoan horren aberatsa den leizea izanik, ezin ditugu liburu mota honetan irudi guztiak xeheki aurkeztu; deigarrienak deskribatuko ditugu, beraz.

Erdibidearen bukaerako lerro kurbatu beltz baten ondoan ageri da aurreneko irudia, Auntzei galeriaren eta Erdialderako segidaren arteko elkargunean. Zaldi baten burua, lepoa eta gurutzua ageri dira hartan, gangatxo baten sabaian (22. irud.). Badirudi Ekain zaldiaren leizea dela iragarri nahiko ligukeela. Aurreraxeago, Erdialden dagoeneko, zaldi buru baten itxura ageri duen harri natural handi batekin egiten dugu topo: bada, ukituak han eta ukituak hemen, sudur-zuloa itxuratu zioten, antza denez. Zaldi buru txiki baten eta bisonte oso baten irudiak ageri dira buruaren behealdean, beltzean landuak biak.

Margoturiko zaldiaren irudiak leizeko buru handiena eskaintzen digu, beltzez eta tinta lauz pintatua. Lauso ageri zaigu egun.

Auntzeiko sarreran, ezkerrean, orein pare agertzen zaigu ondoz ondo, arraren ondotik emea. Orein arrak perspektiba

quierda y la galería principal se bifurca de nuevo en dos, dando otra galería ciega a la izquierda de unos 40 m y otra larga a la derecha de unos 100 m. En todas ellas hay representaciones.

De una cueva tan rica en grafismos, no podemos detallar todas las figuras. Necesariamente tenemos que limitarnos a las más llamativas para un libro de este carácter.

Tras una línea negra curva al final de Erdibide, se encuentra la primera figura, sita en la bifurcación de la galería Auntzei y la continuación hacia Erdialde. Se trata de una cabeza, cuello y cruz de caballo situada en el techo de una bovedilla (fig. 22). Parece anunciar que Ekain es la cueva del caballo. Poco más adelante en Erdialde hay una gran roca natural que semeja la cabeza de un caballo y a la que se le ha hecho el orificio nasal mediante pequeños retoques. Bajo ella hay un pequeño prótomo de caballo y una figura completa de bisonte, ambos en negro.

La figura de caballo pintada, que es la mayor cabeza de toda la cueva, está pintada en negro y a tinta plana. Hoy aparece difuminada.

A la entrada de Auntzei, a la izquierda, hay un ciervo seguido de una cierva,



23. Izokia Ekainen.  
23. Salmón en Ekain.



24. Bisontea, Ekaingo zaldi-arrokaren azpian.  
24. Bisonte bajo la «roca-caballo» de Ekain.

okertuan ageri du burua. Perfillean du gorputza, baina aurrez aurre erakusten digu adajea, oinarriko orkatzak izan ezik.

Izokin baten irudia ageri zaigu aurrerago, beltzean margotua. Harriaren ertzak eta zulo bat baliatu zituzten begia itxuratzeko (23. irud.).

Haren ondoan eta pareko horman, ahuntzak ageri dira, neurri txikikoak eta beltzean margotuak; osoenak ez ditu 20 cm baino gehiago izango. Orban gorri ugari sumatzen dira bi hormetan.

Esana dugu dagoeneko, Erdialde izeneko lekuan, zaldi baten irudi naturalaren behaldez, bisonte ar baten irudia ageri dela, beltzean margotua. Aurreko hankak izan ezik, hankon hasiera baino ez baitzuten margotu, oso-osorik ageri da bisontea: kokotsa, adarrak, ile adatsa bekoki gainera eroria, buztana eta zakila (24. irud.).

Erdialdeko bidean beste irudi batzuk bazterrean utzi eta horra Zaldeiko sarrera, galeria sakonenaren luzapenean.

Bi bisonteren irudiak ageri dira sarrera honen alde banatan, ezkerrean eta eskui-

grabados. El ciervo presenta la cabeza en perspectiva torcida. Está de perfil pero la cuerna, salvo los candiles basales, está vista de frente.

Más adelante y aprovechando los contornos de la roca y un hoyo para el ojo, aparece la figura de un salmón pintado en negro (fig. 23).

Junto a él y en la pared de enfrente hay cabras pintadas en negro, de tamaño pequeño. La más completa, no pasa de 20 cm. En ambas paredes existen también manchas de color rojo.

Ya hemos indicado que en Erdialde bajo la cabeza natural de caballo hay un bisonte macho pintado en negro. A excepción de las patas delanteras, indicadas sólo en su arranque, el bisonte está completo, con la barbilla, los cuernos, la melena que avanza por la frente, la cola y la verga (fig. 24).

Aparte de otras figuras en Erdialde, llegamos a la entrada de Zaldei, prolongación de la galería más profunda.

En esta entrada, a derecha e izquierda, de la misma, hay dos bisontes que parecen



25. Bizkarraren silueta naturala duen bisontea, Ekain.

25. Bisonte con silueta del dorso natural, en Ekain.

naldean, zaldien panel nagusiak ageri diren barrunbeari sarrera berezia egin nahi izan baliote bezala.

Harriaren silueta naturala baliatu du eskuinaldekoak, bisontearen bizkarraldea, buztana eta guzti, itxuratzen baitu leku hartan harriak. Margolariak irudia osatu egin zuen, burua eta adarrak pintura beltzez itxuratuz. Lauso ageri zaizkigu, ordea, kokotsa, bularra eta sabela, eta beheko gorputz atalak, atzealdekoak batez ere, pare honetan doi-doi baizik ez baitira be-launpeak eta apatxak adierazi. Buztana ere marraztu zuten, artesi natural batek irudikatuko zuenaren paraleloan (25. irud.).

Pare-parean, ezkerraldeko horman, beste bisontea ageri da, margo beltzean pintatua, ipurgaina, buztana, sabela eta hankak (bi pareak) ongi zehaztuak, eta burua eta adarrak ahul xamar. Konkorra falta da, baina haren presentzia iradokitzen digu eusten dion harriaren ertzak.

Bizkarralde naturala erakusten duen bisonteari ari garelako berrero, esan dezagun beste irudi batzuk ageri direla horma horretan bertan, eta, aurreraxeago, Ekaingo zaldi panel edo horma handia ikusiko dugun, honako irudi

dar paso a la zona donde se encuentran los paneles principales de caballos.

El de la derecha aprovecha una silueta natural de la roca, que semeja el dorso de un bisonte con su cola. El pintor completó la figura dibujando con pintura negra la cabeza con los cuernos, hoy algo desdibujada, la barbilla, el pecho y vientre y las extremidades, en especial las posteriores, en las que está el par con indicación del corvejón y las pezuñas. Se dibujó también la cola, paralela a la que podía estar representada por una grieta natural (fig. 25).

Enfrente, en la pared izquierda hay otro bisonte, también en pintura negra, con la grupa, cola, vientre y patas (dos por par) bien detalladas y la cabeza con sus cuernos algo desvaída. Falta la giba, que está sugerida en su arranque posterior por un borde de la roca que lo soporta.

Volviendo al bisonte anterior de dorso natural, y en la pared que continúa, hay varias figuras más y un poco más adelante se encuentra el gran panel de caballos de Ekain donde hay 12 caballos, 4 bisontes, una cierva



26. Irudi panel handia, Ekain.

26. Gran panel de figuras de Ekain.

hauek erakusgai: 12 zaldi, 4 bisonte, orein eme bat lehen-lehenik, panela zabalduz, eta arrain itxurako irudi bat azkenik, panela itxiz. Alu bat ageri da haien guztien erdian (26. irud.).

Panelaren goi-eskuinaldeko muturrean ageri da orein emea. Osorik ageri du ia-ia silueta, atzealdeko gorputz atala eta ondoko aldeak eskas. Alde etenak ageri dituzte era berean sabelak eta buruak. Beltzean landua da.

Panelaren goi-eskuinaldean ageri dira sail honetako bisontek. Beltzez margotua da haie-tako lehena eta harriaren ertza segitzen du bere ipurgainean, buztan xuta eta ipurmamiak barne. Atzealdeko hanka bat ageri du, halaber, belaurpea ongi zehaztua, baina muturra falta duela. Modelatu zabal bat ageri du gorputzaren erdialdean. Aurrealdean margul edo ahul ageri da; ongi nabaritzen dira, nolahi ere, burua eta bi adarrak, konkorra eta bularra, aurrealdeko gorputz atalaren hasiera zehaztuta.

abriendo el panel, un pisciforme cerrándolo y una vulva en el centro (fig. 26).

La cierva se encuentra en la parte superior y a la derecha del panel mismo. Es una silueta casi completa, a falta de la extremidad posterior y aldedaños. También el vientre y la cabeza muestran hoy zonas no completas. Está pintada en negro.

Los bisontes del panel se encuentran a la derecha y parte superior del mismo. El primero pintado en negro, sigue en su grupa, cola elevada y nalgas, un reborde rocoso. Se ha pintado también una pata posterior con su corvejón, a falta de su extremo distal. Lleva un modelado amplio en la mitad posterior del cuerpo. La parte anterior está más desvaída, pero se ve bien la cabeza con los dos cuernos, la giba y el pecho con el arranque de la extremidad anterior.



27. Panel handiko bisontea, Ekain.

27. Bisonte del gran panel de Ekain.

Ondoren, eta aurrekoaren gainean zati batean, beste bisonte bat ageri da, kolore gorrian eta beltzean landua, alde batean, eta grabatua gainerako guztian. Osorik ageri da ia, sabelaren atzealdea eta atzeko hankak beste atalik falta ez duela. Itxura guztien araber, bi koloreko zaldiaren irudia errespetatzeagatik ez zuten eremu hura ukitu, ipurgaina ageri baitu besteak alde horretan.

Ondoren, aurreko bisontearen atzealdean, beste bisonte bat ageri da, ia osorik, beltzez margotua; beheko gorputz atalen muturrak falta zaizkio. Buruak bi adarrak erakusten ditu, bizkarraldea ongi markatua, eta berdintsu ageri dira buztanaren abiagunea eta sabela, eta behealdeko gorputz atalen hasierak adieraziak (27. irud.).

Haren behealdean ageri da gorago aipatu dugun bi koloreko zaldi zatiaren grabatua. Osorik dago irudia eta bereziki zainduak xehetasun morfologikoak. Pintura beltzean landu zituzten silueta eta barnealdeko modelatua. Pintura gorria tinta lauz landua zen, gorputza, 'M' itxurako lerroaren goialdea bereziki, ongi koloreztatzeke. Zaldi mota hauek ilajeen duten kolorazio desberdina bereizteko bideratu zuten 'M' itxurako lerroa, gaur egun

A continuación y en parte sobre él hay otro bisonte pintado esta vez en rojo y negro y en parte grabado. El grabado afecta a la giba. La cola la lleva arqueada. Está completo, a falta de la parte posterior del vientre y de las patas traseras. Parece no haber sido pintado en esa región, a fin de respetar la figura de un caballo bicromo cuya grupa se encuentra en esa zona.

A continuación y detrás de este bisonte hay otro pintado en negro y casi completo, a falta de las partes distales de las extremidades. Lleva la cabeza con los dos cuernos, todo el dorso bien remarcado, el arranque de la cola y el vientre con la parte proximal de las extremidades (fig. 27).

Bajo él se encuentra el caballo bicromo y grabado que hemos mencionado más arriba. La figura está completa y se han cuidado mucho sus detalles morfológicos. Su silueta y su modelado interno han sido realizados en pintura negra. La pintura roja se ha utilizado a tinta plana para colorear el cuerpo, en especial la parte superior a la línea en «M», que denota la diferente coloración de estos caballos en su pelaje, a la manera como lo tiene todavía hoy el caballo de

28. Bi koloreko zaldia, Ekaingo panel handian.

28. Caballo bicromo del gran panel de Ekain.



ere Przewalski arrazako zaldiek ageri duten bezala. Beste hainbeste esan beharko genuke lepoan eta hanketan ageri dituen zebra marrei buruz. Grabatze lana buruaren silueta, begia eta bizkar-lerroa itxuratzeko baizik ez zuten bideratu. Oso fina da grabatu hau, burualdean batez ere, eta eragina du, modelatu-lan gisa, ipurgainaren behealdean (28. irud.).

Zaldi horren behealdean, gorritz margoturiko beste zaldi baten silueta ageri da, apaxtik ez duela.

Bi koloretan margotu eta grabaturiko zaldi buruaren aurrean amaitzen da panel handiko irudiak bitan banatzen dituen artesi handi baten goialdea. Eskuinaldean hiru bisonte eta bi zaldi ageri dira, eta ezkerrean gainerako zaldiak eta arrain itxurako irudia. Goialdetik zabaldu egiten da artesi edo arraildura hori, pintura gorritz beteriko ardatz edo alu baten itxurako zulo obalatua eraturik. Alboko zaldia margotzeko bideratu zuten pintura mota berbera da. Leize honetara etorritakoak ugari izan arren, bertako edo kanpoko aurrehistorialarien arteko inortxok ere ez dio zulo edo hobi honi orain arte erreparatu. Panelaren ikusgarritasuna eta zaldiek eta bisontek eskaintzen duten joko hain da aparta eta bikaina non guztion oharkabea geratua baitzen inondik ere. Errepublikaren prestakuntzari begira egin behar izan den lan

Przewalski. Lo mismo decir de las cebraduras negras en cuello y patas. El grabado se limita a la silueta de la cabeza con su ojo y a la línea dorsal. Este grabado, en especial el de la cabeza, es muy fino. Afecta también, a modo de modelado, a la parte inferior de la grupa (fig. 28).

Bajo este caballo hay una silueta completa, a falta de los cascos, de otro caballo pintado en rojo.

Delante de la cabeza del caballo bicromado y grabado termina la parte superior de una gran grieta que separa las figuras del gran panel en dos partes. A su derecha quedan 3 bisontes y 2 caballos y a su izquierda los demás caballos y el pisciforme. En su parte superior esta grieta se ensancha dando un hoyo ovalado fusiforme o vulviforme, que está relleno de pintura roja, del mismo tipo que la del caballo adyacente. Nunca nadie, ni los prehistoriadores vascos ni los muchos foráneos que han visitado la cueva, nos habíamos fijado en este hoyo. La espectacularidad del panel y la contemplación de sus caballos y bisontes nos ha distraído totalmente a todos. Es a raíz de las horas que ha llevado la realización de la réplica, cuando se han descubierto una serie de motivos nuevos

zehatz saiatuak jarri gaitu, ordea, beste motibo berri batzuen peskizan, eta horien artean nabarmendu nahi izan dugu alu edo bulba hau. Argi eta garbi esan dezagun, aurren-aurrenik, zulo naturala baliatu zutela hura itxuratzeko, leize honetako beste irudi askotan zulo, artesi eta ertz naturalak erabili ziren bezala.

Beste zaldi bat ageri da aluaren ezker aldean, osorik, pintura beltzean landua eta margo berberaz barru-betea. Irudiaren atal askotan galdu da, itxuraz, pintura hori. Nolanahi ere, erraz asko ondoriozta genezake zaldi honek bere gorputzaren aurrealdean (burua, lepoa, bularra eta gurutzea) gainerako ataletan baino kolore biziagoa ageri zuela (orban «mongoliarra»). Aurrealdea eta atzealdea bereizten dituen kolorazio alde hau leizeko beste zaldi batzuetan ere nabari daiteke, eta bete-betean dagokio bertako zaldi neolitikoen errealtateari, leizean ageri diren ale batzuetan behinik behin. Berebat suma dezakegu egungo Przewalski zaldi motan ere. Beltzurik ageri zaizkigu hankak ere, atzealdekoak bereziki.

Zaldi horren atzean, beste baten atzealdea ere ageri zaigu, bukatu gabe. Haren gainean, deskribatu berri dugunaren aurrealdean gainean, bisonte baten lerroari jarraitzen zaizkion karrakadura batzuk ageri dira. Zer nahi izango ote zuen bisonte haren egileak, panelean mosaiko baten antzera paraturiko irudien norabidearen kontra joanik?

Zaldi horren behealdean beste zaldi bat ageri da, siluetan beltzez eta barruan tinta lauz itxuratua. Zehatz-mehatz definituak dira hartan kima-lerroa, gurutze zerronda, saihespearen 'M' itxurako modelatua, beso eta hanketako zebra marrak, eta hanken xehetasun anatomikoak, hala nola ukaraiak aurrekoetan eta belaupeak, zurda-multzoak eta apatxak

entre los que queremos resaltar esta vulva. Aprovecha por tanto un hoyo natural, como se han aprovechado hoyos, grietas y contornos naturales en otras muchas figuras de esta cueva.

A la izquierda de la vulva hay otro caballo completo, en pintura negra y relleno asimismo de la misma pintura. Ésta parece haberse perdido en buena parte de la figura. De todas formas es fácil que este caballo presentara en la parte anterior del cuerpo (cabeza, cuello, pecho y cruz) una coloración negra más intensa que en el resto (mancha «mongólica»). Esta diferencia ántero-posterior en la coloración, que se ve también en otros caballos de la cueva, responde a la realidad del caballo paleolítico de la zona, al menos en determinados ejemplares. Puede verse también, en casos, en el Przewalski actual. Las patas están también ennegrecidas, en especial las traseras.

Detrás de este caballo hay un cuarto trasero de otro inacabado. Sobre él y sobre la parte anterior del que acabamos de describir existe una superposición de raspados que siguen la línea de un bisonte. ¿Qué intención tuvo quien lo realizó, yendo en contra de la posición en mosaico de las figuras del panel?

Bajo este caballo hay otro pintado en negro en su silueta y a tinta plana en su interior, en el que se han plasmado muchos detalles. Están perfectamente definidas la crinera, la banda crucial, el modelado en «M» del flanco, las cebraduras de antebrazos y piernas, los detalles anatómicos de las patas, tales como las muñecas en las anteriores y los corvejones, cernejas y cascos en las posteriores. Es-



29. Zaldi beltza, Ekaingo panel handian.

29. Caballo en negro del gran panel de Ekain.



atzekoetan. Aurreko hanken muturrak burutu gabe ageri dira, azpian dagoen zaldiaren bizkarraldera iristen diren gunetik behera hain zuzen ere. Arestian ikusi ahal izan dugun bezala, guztiz saihestu dira leize honetan irudien arteko gainezkatzeak. Etengabe ageri zaigu joera hori Ekainen, Altxerrin ez bezala. Kimak lerro bikoitza ageri du bere garapenean, leize honetako zaldi batzuetan gertatzen denaren bestaldera: beste kasu horietan, elkarzut bideaturiko marra bertikal labur batzuen bidez adierazi da kima-lerroa (29. irud.).

Leize honetako beste kasu askotan gertatzen den bezala, guztiz deigarriak dira zaldi horren atzealdea aurkezteko bideratu ziren gehiegizko formak (beste horrenbeste ikusi dugu Santimamiñeko ganbarako panel nagusiko zaldiaren kasuan).

Zaldi horren behealdean, bi koloretan taxaturiko beste bat agertzen zaigu, osorik eta zati batean grabaturik. Zoragarri landu zuten haren burua, eta leizeko ederrena da. Margo beltzean landu zuten haren silueta, beheragune baten bitartez zaldiaren sudur-zuloa ongi itxuratzen duena; trazu kurbatu soil baten bitartez mugatu zuten ondoren albo batetik sudur-zuloa. Marra batez zehaztu zuten ahoa. Horrez gainera, grabatu ezin finago batez adierazi zituzten belarria, bekoki-su-

tán por terminar los extremos distales de las patas anteriores, justamente cuando éstas alcanzan el dorso del caballo que está debajo. Como hemos visto anteriormente se evita la superposición. Ésta parece ser una constante en Ekain, a diferencia de lo que ocurre en Altxerri. La crinera ha sido tratada con una línea doble longitudinal, a diferencia de lo que veremos en otros caballos de la cueva, en los que ésta se dibuja mediante cortas líneas verticales, perpendiculares al desarrollo de la misma (fig. 29).

Llama la atención en este caballo, como en otros muchos de la cueva, la forma exagerada como se representa la parte posterior del cuerpo del animal, cosa que hemos visto también en el caballo del panel principal de la cámara de Santimamiñe.

Bajo este caballo hay otro bícromo, parcialmente grabado, completo. La cabeza está maravillosamente trazada, siendo la más bella de la cueva. Está siluetada en pintura negra. Esta silueta representa bien el ollar mediante una inflexión tras de la cual se ha hecho un simple rasgo curvo que limita el orificio nasal en su zona lateral. La boca está representada por una línea. Además la oreja, perfil frontonasal y fauces llevan un grabado muy fino. Hay también



30. Bi koloreko zaldi buru izugarri handia, Ekaingo panel handian.
30. Caballo bicromo del gran panel de Ekain, con una cabeza extraordinaria.

durren alboko perfila eta ahutzak. Tinta laua ere ageri da hartan, gorria eta beltza. Marra labur bertikal batzuek itxuratzen dute oraingoan kima-lerro zuta; ez da arestian aipaturiko lerroaren aztarnarik ageri. Zerrenda beltzak abiatzen dira kimatik; gurutzekoa da zabalena. Xehetasun handiz aurkeztu zituzten aurreko hankak, hala abiagunean nola garapenean. Ongi adieraziak dira zebra marrak, beso eta hanketan, bai eta ukaraiak, zurda-multzoak eta apatxak ere. Atzealdean hanka bakarra ageri da, eta ez horren xehe aurkeztua, bi zebra marra eta belaupea adierazi badira ere. Hipertrofiaturik ageri da, halaber, gorputzaren atzealdea (30. irud.).

Beste bost zaldi ageri zaizkigu deskribatu berri ditugun hiruen aurrean. Bereziki azpimarratu beharra dago haietako bigarrena, goitik behera begiratuta. Osorik ageri da animalia, eta beltzean landua, hala siluetan nola gorputzaren barruan. Arestian, beste zaldiak deskribatzerakoan, adierazi ditugun xehetasun berberak ageri ditu honek ere: kima-lerro zuta, marra laburrez adierazia, zebra marrak lepoan eta gurutzean, bizkarraren eta sabelaren arteko muga, 'M' itxurako lerro batez zehaztua, eta zebra marrak besoetan. Aurreko gorputz ataletan zehazturik ageri

tinta plana en negro y en rojo. La crinera enhiesta está representada aquí mediante una serie de trazos cortos verticales, en lugar de la línea longitudinal citada. De la crinera parten bandas negras, la más ancha de las cuales es la crucial. Se han dibujado con gran detalle las patas anteriores, tanto en su arranque como en su desarrollo. Están bien indicadas, en antebrazos y piernas, las cebraduras. También las muñecas, cernejas y cascos. La pata trasera, única, no está tan detallada, aunque se marcan dos líneas cebroides y el corvejón. La parte posterior del cuerpo está también hipertrofiada (fig.30).

Delante de estos últimos tres caballos descritos hay otros cinco, de los que cabe resaltar el segundo comenzando por arriba. Se trata de un caballo completo, en pintura negra, tanto en su silueta como en el relleno del cuerpo. Están presentes todos los detalles enumerados anteriormente en otros caballos: crinera erizada, indicada mediante cortos trazos, cebraduras en cuello y cruz, diferenciación dorso-ventral mediante la línea en «M» y cebraduras en antebrazos. En las extremidades anteriores se ha indicado el codillo y las muñecas, en las posterior-

31. Zaldi beltza, Ekaingo panel handian.

31. Caballo en negro del gran panel de Ekain.



zaizkigu zangarra eta ukaraiak, atzekoetan belaunpeak, eta guztietan zurda-multzoak eta apatxak (31. irud.).

Kurba gorri batek ematen dio panelari amaiera.

Ikuslearen ezkerraldera, hau da, leizearen barnealdera, hartzak dauden aldera, begiratzten dute zaldi guztiek, osorik ageri den batek eta zati batean baizik ageri ez den beste batek izan ezik.

Aurreko horman badira, dagoeneko aipatu dugun bisonteaz gainera, beste bisonte zati bat, eta beste lau zaldi, nahikoa osorik, eta guztiz bukatu gabeko beste lau.

Leizearen kanpoaldera, hau da, ikuslearen ezkerraldera daude begira maila gorenean eta beheenean ageri diren bi zaldiak. Barnealderantz begiratzen dute beste sei zaldiek, panel handikoek bezala.

Gailen ageri zaigu haietako bat, panelaren erdi-erdian hain zuzen ere. Pintura beltzean landu zuten, tinta lauz trazu batzuetan, eta xehetasun kopuru handia ageri du (32. irud.). Buruan pinturaz beteriko alde bat dauka, aurpegian. Bi lerro bertikal jaisten dira belarrien ondotik matrailezurreraino. Ez da begirik sumatzen. Lausoan ageri da muturraldea, eta sudur-zuloa iradokitzen du, itxuraz, lerro batek

res los corvejones y en todas las cernejas y los cascots (fig. 31).

El panel termina con una línea curva roja.

Todos los caballos excepto uno y otro incompleto, miran hacia la izquierda del espectador, es decir hacia el interior de la caverna, hacia la zona donde están los osos.

En la pared de enfrente, además del bisonte que hemos comentado ya, hay otro más incompleto, cuatro caballos más o menos completos y cuatro más, incompletos.

Solo miran hacia el exterior de la caverna, es decir hacia la izquierda del espectador, el caballo más elevado y el situado en posición inferior. Los demás miran hacia el interior, como los del gran panel.

Sobresale entre ellos uno en posición central dentro del panel. Está dibujado en pintura negra, en partes a tinta plana, con una serie numerosa de detalles (fig. 32). En la cabeza hay una zona rellena de pintura en parte de la cara. Hay dos líneas verticales que bajan desde la zona próxima a las orejas hasta la mandíbula. No se aprecia el ojo. La zona de los bellos está borrada y una línea parece indicar el ollar. También está algo perdida la zona de las orejas. si bien éstas están presentes. La más corta y



32. Zaldi beltza, Ekaingo panel txikian.

32. Caballo en negro del pequeño panel de Ekain.

Galdu xamarra ageri zaigu, halaber, belarrien aldea, belarriak argi eta garbi bereizten diren arren. Laburrena eta, aldi berean, aurreratue-na, kima-lerroaren hasiera izan liteke. Leizeko beste zaldi batzuetan gertatzen den bezala, le-rrero bertikal batek bereizten du burua lepotik. Pintura beltzez beterik dago lepoa, bularre-raino alde batetik, eta bizkarreraino bestetik. Zerrenda batzuk ageri ditu gurutzetik hurbilen dagoen aldean, beste zaldi batzuetan ere ikusi dugun bezala. Marrazturik ageri dira aurreal-deko bi hankak. Eskuinaldekoak zebra-marrak ageri ditu besoan, eta ukarrietatik aurrera pin-turaz beterik ageri dira biak. Ongi zehaztuak dira zurda-multzoak eta apoak. Bukatuak ageri dira, era berean, atzeko hankak eta ongi nabari daiteke haietan eskuinaldekoaren atzealdeko silueta, belaunpearen inflexioa zehazki adiera-zia. 'M' lerroa marraztu da gorputzean, beste kasu batzuetan bezala, baina marraren goialdea ez da oraingoan ilundurik ageri. Oso behetik abiatzen da buztana. Marra luzeagoak edo labur-ragoak ageri ditu zaldi honek hainbat gorputz ataletan, sastaturiko geziak irudi edo.

Beste zaldi bat ageri da azaldu berri du-gunaren aurrean, silueta osorik marraztua. Buru eta kima aldeak lausoturik ageri zaizki-gu, gainerako gorputz atalak ez bezala.

más adelantada puede ser, en vez de oreja, el arranque de la crinera. La cabeza está separada del cuello por una línea vertical, como en otros caballos de la cueva. El cuello, hasta el pecho por un lado y hasta el dorso por otro, está relleno de pintura negra. Lleva en su zona más próxima a la cruz varias bandas, como hemos visto en otros caballos. Están dibujadas ambas patas anteriores. La derecha lleva líneas cebroides en el antebrazo y desde las muñecas están ambas rellenas de pintura. Están bien indicadas las ceñijas y los cascos. En las patas posteriores, terminadas, se aprecia bien la silueta posterior de la derecha con la inflexión del corvejón. En el cuerpo se ha trazado la línea en «M» como en otros casos. Aquí no se ha oscurecido la parte superior de esta línea. La cola arranca en una zona muy baja. En distintos puntos del cuerpo lleva líneas más o menos largas, que pueden significar venablos clavados.

Delante de este caballo hay otro también asaeteado, de silueta completa. La parte de la crinera y cabeza está algo desvaída, a diferencia del resto del cuerpo.

33. Panel txikiko zaldia, harriaren gorabeherak baliatuz itxuratua.

33. Caballo del pequeño panel, que aprovecha numerosos accidentes rocosos.



Harriaren ertz eta artesi naturalak baliatuz itxuratu zuten paneleko azken zaldia, falta ziren aldeak baizik ez baitzituzten marraztu, pintura beltzez marraztu ere (33. irud.). Aurkeztu dugun marrazkian, arkatz marra lodiago batez adierazi dira Paleolitoko margolariak marrazturiko trazuak. Harriak eskainiak dira gainerako atalak, tinta meheaz adierazi ditugunak.

Panel handiaren aurrean zabaltzen den ganbaran, estalagmita estaldurak eta errezelek ageri dira han eta hemen, eta irudi batzuk ikus daitezke hartan ere, ez, ordea, horren ederrak eta ikusgarriak, eta ez ditugu, beraz, aurkeztuko.

Aurrerago, erdialdeko galeriako (Artzei) zabalgunearen ezker aldean, trabertino pikortsuz estaliriko sabai apal bat ageri da. Bada, bi hartzen irudiak marraztu zituzten sabai horretan (34. irud.). Silueta soilak dira biak, beltzez eta marra lodian pintatuak. Badirudi margotu ondoren hein batean lerratu egin zela pintura, jatorrizko marren ertzak gaindituz. Osorik ageri da hartz txikia, eta bururik gabe handia, buztana ongi zehaztua alabaina. Pintura marra labur bat ageri du bihotzaren mailan. Bestalde, marrazturik ez ezik grabaturik ere ageri du bizkarraren lerroa. Marra grabatua lodia da eta sabaiak

El último caballo del panel se ha construido sobre una serie de bordes y grietas naturales de la roca, marcando con pintura negra solamente las zonas que faltan (fig. 33). En el dibujo que presentamos se indica con línea más gruesa de lápiz, los trazos dibujados por el pintor paleolítico. El resto, las partes indicadas con tinta fina, se lo ofreció la roca.

En la cámara que se abre frente al gran panel, donde hay un conjunto de mantos y cortinas estalagmíticas, hay también algunas figuras no tan conspicuas, en las que no podemos entrar.

Más adelante, en un rellano de la galería central (artzei) a cuya izquierda hay un techo bajo cubierto de travertino granuloso, han sido pintados dos osos (fig. 34). Ambos consisten en simples siluetas pintadas en negro con trazo ancho. La pintura parece haberse corrido después, desbordando las líneas originarias. El oso menor está completo. Al mayor le falta la cabeza. Muestra en cambio la cola bien definida. Lleva un trazo corto de pintura a la altura del corazón. Por otro lado su línea dorsal está grabada además de pintada. El grabado es ancho y ha quitado, en su recorrido, la granulosis que el techo muestra en toda esa zona. Se



34. Hartz parea, Ekain.

34. Pareja de osos de Ekain.

alde horretan ageri duen izaera pikortsua guttiz galdua da haren bidean. Hartz arreak dira, eta ez leizeetako hartzak, gerrien garpenak eta gurutzaldearen morfologiak ongi adierazten dituzten bezala.

Hartzak ageri diren sabai honetatik 19 metro ingurura, galerian barrena aurrera goazela, areto zabalago batera iritsiko gara; horra Azkenzaldei. Zazpi zaldik osaturiko multzoa ageri da eskuinaldeko horman; eskuinalderantz, hau da, hartzak dauden alderantz, begira daude zaldi horiek guztiak.

Lerro kurbatu beltz batek ematen dio multzoari hasiera: haren ondoan ageri da aurreneko zaldia, besteen artetik alden du xamar. Silueta soil bat da, pintura beltzean landua, eta gurutzean eta bizkaraldean tinta laua ageri duena. Ongi zehaztua du kima-lerroa, bai eta gurutzaldeko zerrandaren hasiera eta burua eta lepoa bereizten dituen lerroa ere. Ez zuten begia margotu, ez eta hanken muturrak ere. Leizeko beste hainbat zaldiren kasuetan bezala, hipertrofiaturik ageri du atzealdea (35. irud.).

Aurrekoaren ezker aldean, 3 metro ingurura eta maila beheraxeagoan, hasten da gainerako zaldien saila. Gorriz pintatua ageri



35. Zaldia, Ekaingo azkeneko zaldi panelean.

35. Caballo del último panel de caballos de Ekain.

trata de osos pardos y no de osos de las cavernas como lo indican el desarrollo lumbar y la morfología de la zona de la cruz.

A 19 m de los osos, progresando en la galería principal, llegamos a una sala más amplia (azkenzaldei) que contiene en su pared derecha un conjunto de 7 caballos, todos ellos mirando hacia la derecha, es decir hacia la zona donde se encuentran los osos.

Se inicia el grupo con una línea curva negra tras la cual está el primer caballo, algo separado de los demás. Se trata de una silueta simple en pintura negra con algo de tinta plana en la zona de la cruz, dorso y lomo. La crinera está bien marcada así como también un comienzo de la banda crucial y la línea divisoria de cabeza y cuello. No se ha pintado el ojo ni los extremos distales de las patas. Como en tantos caballos de la cueva, la parte posterior está hipertrofiada (fig. 35).

A 3 metros a la izquierda del anterior y en posición más baja se inicia la serie de los restantes caballos. Comienza por uno pintado en rojo, si bien su silueta está pintada en negro. Está algo incompleto en su zona

36. Grabaturiko geziak jotako zaldia, Ekaingo azkeneko zaldi panelean.

36. Caballo con flecha grabada en el último panel de caballos de Ekain.



da aurrenekoa, baina beltzez margotu zioten silueta. Bukatu gabe du atzealdea. Bestalde, grabaturik ageri ditu siluetaren alde batzuk: burua, lepoaren behealdea, aurreko hanka eta sabelaren aurreko lerroa. Tinta lauко pintura gorriz barru-beterik ageri da irudia, eta nabarmena da, berriro ere, 'M' itxurako lerroa saihaspean.

Beste zaldi bat ageri da ondo-ondoan, pintura beltzean landua eta, zati batean, grabatua. Margul ageri da irudia. Beltzez egin zuten halaber ondokoa, bai eta barrua pinturaz bete ere. Grabaturik ageri du alde bat.

Sailean ondoen kontserbatu dena dugu hurrengo zaldia; xehetasun handiz landu zuten irudia. Pintura beltzez marraztu zuten eta grabaturik ageri du alde bat, bizkarraren siluetari jarraituz, belarritik buztanaren abiaguneraino. Animaliairen silueta osoa itxuratu ez ezik, xehetasun ugari ageri ditu marra beltzak. Argi marraztu zituzten belarria eta lepoaren bizkarralderako lerroa, eta haien gainean erantsi zuten kima-lerroa, belarrien artetik tupe moduan aurreratzen dena. Nabarmen aurkeztu zituzten, bestalde, buruaren eta lepoaren arteko lerroa, lepoko zebra itxurako zerrendak, saihaspeko 'M' itxurako lerroa, belauinak, zurda-multzoak, belaupeak, atzeko ezker hankako zebra marra eta hiru marra kurbatu

posterior. Parte de la silueta, en la cabeza, línea inferior del cuello, pata anterior y línea anterior del vientre, está grabada. La figura está también rellena de pintura roja a tinta plana, que marca una vez más la línea en «M» del flanco.

Inmediatamente detrás hay otro caballo en pintura negra y en parte grabado, muy desvaído. Sigue luego otro pintado en negro y en gran parte relleno de pintura. Lleva también grabado.

El siguiente es el mejor conservado de la serie y fue realizado con profusión de detalles. Está dibujado con línea de pintura negra y algo de grabado, que sigue a la silueta dorsal desde la oreja hasta el arranque de la cola. La línea negra, además de completar del todo la silueta del animal, encierra numerosos detalles. Se ha dibujado claramente la oreja, la línea dorsal del cuello y encima la crinera, que avanza entre las orejas en forma de tupé, la línea divisoria de cabeza y cuello, las bandas cebroides de éste, la línea en «M» del flanco, las rodillas, las cernejas, los corvejones, cebraduras en la pata posterior izquierda y tres trazos curvos en el vientre, dos cortos superpuestos y uno más largo detrás. Entre los signos grabados que penetran en

sabelean, bi labur elkarren gainean eta beste bat luzeagoa, haien atzean. Grabaturik ageri diren zeinuen artetik, bereziki nabarmendu beharra dago zaldia bihotzaren mailan sastatzu ageri den gezia (36. irud.).

Zaldi horren ondoan, haren eta hurrengoaren artean, lerro bertikal batzuk ageri dira grabaturik. Luzeak dira eta beheantz, bat egiteko moduan, bideratuak.

Beste zaldi bat dator ondoren, pintura beltzean landua eta zati batean grabatua. Zaldi buru batek ematen dio sailari amaiera. Grabaturik ageri da, zati batean, eta barrua tinta lau gorritz betea.

Zaldi multzo honen goialdean, 40 bat cm gora hain zuzen ere, elkar gurutzatzen duten lerro batzuk ageri dira, grabaturik.

Hamahiru metro inguru egin ondoren iristen gara jo galeriaren muturreraino. Sakonera txikiko grabatu zabal batzuk ageri dira gune hartan: bi errinozeroren aldeak genituzke, baina zalantza handiak ditugu haien egiazko izaeraren aurrean.

Labur esateko, aurkezten dituen zaldi multzo handi ikusgarriak ditugu Ekaingo ezauzgarri nagusia. Zaldi horietako asko gorritz eta beltzez margotuak dira, eta xehetasun handiz agertzen dira irudi haietan buruak, hankak eta ile-adatsak. Grabatuak osatzen du zenbaitetan margolana. Multzoen artetik bereziki aipagarria da Zaldeiko panel handia deiturikoa. Deigarria da, orobat, Artzei izeneko gunea, bertako bi hartzen irudiek edertua.

Goi Madeleine aldi berrieneko kronologia egokitu zaie Ekaingo irudiei.

el caballo destaca una flecha a la altura del corazón (fig. 36).

Detrás de este caballo, entre él y el siguiente, hay una serie de líneas grabadas verticales, largas que convergen algo hacia abajo.

Sigue otro caballo en pintura negra y en parte grabado y cierra el conjunto un prótomo de caballo en parte grabado y relleno de tinta plana roja.

Por encima del conjunto, a unos 40 cm más arriba de este conjunto de caballos hay una serie de líneas grabadas que se entrecruzan.

Continuando hasta el fin practicable de la galería, situado 13 m más adelante, hay unos grabados anchos y poco profundos, que parecen, con dudas, dibujar partes de dos rinocerontes.

Resumiendo, Ekain se caracteriza por los grandes conjuntos de caballos representados, muchos de ellos pintados en rojo y negro, con profusión de detalles en cabezas, patas, pelajes, a veces completados por grabado. Destaca entre todos los conjuntos el llamado gran panel de Zaldei. Es también llamativo el lugar denominado artzei, por la representación de los dos osos que encierra.

La cronología que se asigna al conjunto de figuras de Ekain es un Magdaleniense avanzado.



37. Trazu gorri pareak,  
Astigarragako leizean.

37. Trazos rojos pareados  
de la cueva de Astigarraga.



---

## Astigarraga

(Deba, Gipuzkoa)

---

Goltzibar izeneko haranean, Ekain leizetik ez oso aparte, dago Astigarragako leizea. Multzo urgoniarreko kareharri kretazikoen tartean irekia da. Sarrerako ahoa txikia da, 2 m zabal eta 0,90 metroko garaiera. Beheranzko arrapala batean barrena aurrera segi eta areto zabal horizontala agertzen da ondoren; bi galeria abiatzen dira gunehartatik, laburra bata eta luzea bestea. Urak harturiko areto txiki batek ematen dio amaiera luzeari.

Indusketa lanetan ari da bertan J. Mujika 2005. urtetik. 2009ko lanetan, hainbat margolan azaldu ziren aipaturiko areto horretan. Kolore gorriko 16 marra pare azaldu dira, alde batetik: 4 cm inguruko luzerakoak dira marrak (37. irud.). Haietaz gainera, pintura beltzeko gunehartatik ageri da areto horretan berean: estalagmita konkrezio batek estalia da eta grabaturiko lerroak ageri ditu.

Bestalde, hezur printza batzuk azaldu dira, artesi edo arrailduretan iltzatuak, marra gorriak ageri diren horma berean. Beste hainbesteko ikusi dugu Askondoko leizean eta ikusiko Altxerriko goi galerian.

---

## Astigarraga

(Deba, Gipuzkoa)

---

La cueva de Astigarraga se encuentra en el valle de Goltzibar, no lejos de la cueva de Ekain. Se abre en calizas cretácicas del complejo urgoniano. Presenta una entrada de 2 m de anchura por 0.90 de altura. Mediante una rampa descendente, comunica con una amplia sala horizontal de la que salen dos galerías desiguales en longitud, una corta y otra más larga, que termina en una pequeña sala inundada.

Está siendo excavada por J. Mujika desde 2005. Durante las excavaciones de 2009, en la sala citada, se han descubierto unas cuantas pinturas consistentes, por un lado en 16 trazos pareados de color rojo, cada uno de los cuales tiene una longitud de unos 4 cm (fig. 37). Además de estos trazos, en la misma sala, ha aparecido una concentración de pintura negra, cubierta por una concreción estalagmítica y unas líneas grabadas.

Por otro lado en la misma pared donde se encuentran los trazos rojos, han aparecido esquirlas de hueso clavadas en grietas, como hemos visto en la cueva de Askondo y veremos en la galería superior de Altxerri.



38. Harrobiak irekitako sarrera, Altxerriko leizean.

38. Entrada abierta por la cantera a la cueva de Altxerri.

---

## Altxerri (Aia, Gipuzkoa)

---

Hiru espeleologo gaztek –F. Aranzadik, J. Migliacciok eta J. C. Vicuña– aurkitu zuten Altxerriko haitzuloetako arte multzoa 1962an, Aiako lurretan baina Orioko hirigunetik ez urrun. Arrantzale herri horretatik iristen da, hain zuzen ere, leizera erosoan.

Leizea guztiz ezezaguna zen joan den mendearen erdialdeko 50. urteetan inguru haietan lantzen ari ziren harrobi txiki bateko dinamita-leherketa batek agerian utzi zuen arte. Metro beteko zabalera eta 80 cm-ko altuera zituen ireki zen ahoak, eta karst multzo garrantzitsu bat agertu zen hartan barneratu eta gero. Zorionez, gune hartan berean bukatu ziren harrobi lanak, behar zuten harri-garaia eskuratu eta gero (38. irud.)

Hasieran, bertara abentura bila sartzen ziren Orio eta Zarauzko gazteak erakartzea beste interesik ez zuen sorrarazi agerian utzirik leizeak. Sarraldi hauek ‘graffiti’ arrasto batzuk utzi zituzten, baina, zorionez, ez zuten multzo paleolitikoan halako eraginik eduki.

Sarrera naturala zabal xamarra zen eta aipaturiko harrobi lanetan modu artifizialean irekitako zulotik oso hurbil zegoen, baina

---

## Altxerri (Aia, Gipuzkoa)

---

El conjunto de arte rupestre de Altxerri fue descubierto por tres jóvenes espeleólogos, F. Aranzadi, J. Migliaccio y J. C. Vicuña en 1962, en terrenos de Aia, pero no lejos del casco urbano de Orio. Es desde esta localidad desde donde se accede a la cueva con mayor comodidad.

La cueva, desconocida totalmente hasta mediados de los años 50 del siglo pasado, fue abierta por un dinamitazo de una pequeña cantera explotada en el lugar. Se abrió así un pequeño boquete de 1 m de anchura y 80 cm de alto, desde el que se descubrió un importante complejo kárstico. Afortunadamente los trabajos de la cantera terminaron en este punto, una vez obtenido el material suficiente para su propósito (fig. 38).

En un comienzo la cueva descubierta no tuvo más trascendencia que la de atraer a muchachos de Orio y Zarautz, que penetraban en la cavidad con el único interés de la aventura juvenil. Estas incursiones dejaron algunas huellas de «graffiti», que afortunadamente no tuvieron mayor incidencia sobre el conjunto paleolítico.

mazelan behera lerraturiko sedimentuek eta sarreraren barnealdean eratu zen estalagmita geruza lodi batek estalia zen. Berriro ere itxi zen sarrera hura, agerian utzi ondoren, leizean luzaro nagusi izan diren eta irudien kontserbaziorako aukera eman duten baldintzei eutsi ahal izateko; eta, beraz, harrobi lanetan irekitako zulo txiki hura dugu egungo sarrera.

J. M. Barandiaranek bideratu zituen han aurreneko azterketa lanak. Ondoren, beste lan bat argitaratu zuten J. Altunak eta J. M. Apellanizek 1976an. J. Altunak beste bat argitaratu zuen 1996an, eta J. Altunak eta K. Mariezkurrenak aurkikuntza berri batzuei buruzko lan bat argitaratu zuten 2008an.

Ongi estratifikaturiko kareharrietan irekia da leizea, ugari baitira haietan diaklasak edo pitzadurak. Estratuak mehe xamarrak dira eta oso gutxitan baizik ez dute 40 cm-ko lodiera gainditzen. Haien artean, aldizka ageri dira tuparri meheko geruzak, uraren jarioa biziki errazten dutenak.

Ezagun dute estratu horiek Tertziarioko orogeniaren eragin bortitza jasan dutela, tolesen eta diaklasa txikien adibide ederrak ikus baitaitezke haietan: ez dira maiz estratu batetik bestera igarotzen, haien arteko muga garbiek eusten edo gerarazten baitituzte. Egoera horretan, erraz asko erori dira harri blokeak denboran zehar, zorua estaliz, sarreraren inguruetan batez ere. Malkarra eta gorabeheratsua da oso sarrera alde hori. Berdindurik ageri zaigu zorua beste alde batzuetan, uraren etengabeko jarioak garraiatu- turiko buztinaren pausatze edo sedimentazioaren ondorioz.

Halatan, Euskal Herriko haitzuloena ez bezalako itxura hartzen du Altxerriko lei-

La entrada natural, relativamente amplia, situada muy cerca del boquete artificial abierto por la cantera citada, estaba taponada por sedimentos deslizados por la ladera y por un espeso manto estalagmítico formado en la parte interna de la entrada. Tras ser descubierta esta entrada se volvió a taponar a fin de conservar las condiciones que durante mucho tiempo han reinado en la caverna y han permitido la conservación de las figuras. La entrada actual sigue siendo el pequeño boquete abierto por la cantera.

El primer estudio lo realizó J. M. de Barandiaran en 1963. Posteriormente J. Altuna y J. M. Apellániz publicaron otro en 1976. Más tarde J. Altuna publicó otro en 1996 y J. Altuna con K. Mariezkurrena han publicado nuevos hallazgos en 2008.

La cueva se abre en calizas bien estratificadas y con numerosas diaclasas. Estos estratos son relativamente delgados y rara vez sobrepasan los 40 cm de espesor. Entre ellos se intercalan otros margosos finos, por los que se filtra el agua fácilmente.

El conjunto de estratos ha sido fuertemente afectado por la orogenia terciaria y pueden verse en ellos bellos ejemplos de pliegues y pequeñas diaclasas, que con frecuencia no pasan de un estrato al otro, pues son detenidos o amortiguados por los netos límites existentes entre los mismos. Todo ello ha contribuido a la caída de bloques, que cubre el suelo, especialmente en las proximidades de la entrada, haciéndola muy accidentada. En otras zonas la sedimentación de la arcilla acarreada por la constante infiltración de agua ha regularizado el suelo.

Todo esto hace que la cueva de Altxerri tenga un aspecto distinto de la mayoría de

zeak, kareharri nagusiki trinkoetan ageri baitira haietako gehienak.

Irudiak aipaturiko estratuen aurrealdeetan edo ebakietan landu zituzten batzuk, eta estratifikazio planoetan beste batzuk. Aurreneko kasuan, estratuen izaera meheak ez du irudiak handi izateko aukerarik eskaintzen, ezin sartuko bailirateke aurrealde horietan.

Leizea zabala da oso lehen zatian, baina mehartu egiten da ondoren, zoru oso malkarreko galeria luze batean barrena.

Hainbat ezaugarritan oinarritzen da Altxerriko aztarnategiaren garrantzia. Lehenik, ehun-dik gora animalia irudi ageri dira leizean. Badira, gainera, bi antropomorfo, ikur sail bat eta gune marratu batzuk. Handia da irudietan ageri diren animalia espezieen aukera; izan ere, bisontea nagusi den arren, badira elur-oreinak, oreinak, zaldiak, uroak, ahuntzak, saigak, sarrioak, azeriak, arrainak, hegazti bat eta suge itxurako beste animalia bat ere. Arestian aipatu bezala, bi gizaki itxurako irudi ere badira. Kontuan hartzekoa da, halaber, ikur edo zeinu kopuru handi bat, banakoan eta multzoan interpretatzen zaila. Era berean, bada goi galeria bat, geroago aipatuko duguna. Beste sarrera bat izango zuen eta barne hartan ageri den multzoa txikia da, baina galeria nagusikoaren antzik ez duena.

Sarreratik 100 bat metrotara ageri dira galeria nagusiko lehen irudiak. 9 multzotan banatuak dira irudi guztiak; 7 daude galeria nagusian, zortzigarrena beheagoko galeria batean, eta bederatzigarrena goiko galerian. Gainerako guztiak baino lehenagokoa da azkeneko hau, eta arras bestelakoa. Galeria nagusikoek antz handia dute elkarren artean, estiloan eta kronologian.

las restantes cuevas del País Vasco abiertas preferentemente en calizas compactas.

Las figuras han sido realizadas bien en los frentes o cortes de los estratos mencionados, bien en los planos de estratificación. En el primer caso la relativa delgadez de los estratos obliga a que las figuras no sean grandes, a fin de que puedan entrar en esos frentes.

La cueva es muy amplia en su primer tramo, pero se estrecha después, dando una larga galería de suelo muy accidentado.

La importancia de Altxerri estriba en muchos motivos. Existe en la cueva, en primer lugar, más de un centenar de figuras animales, junto a dos antropomorfos y una serie de signos y zonas rayadas. La variedad de las especies representadas es muy grande, pues aunque domina con mucho el bisonte, hay renos, ciervos, caballos, uros, cabras, saigas, sarrios, zorros, peces, un ave y hasta un serpentiforme. Existen también dos antropomorfos. Todo ello unido a un elevado número de signos de difícil interpretación. Además existe otra galería superior de la que hablaremos al final, que debía tener otra entrada distinta y que alberga un conjunto reducido pero muy distinto del que veremos en la galería principal.

Las primeras figuras de esta galería principal se encuentran a unos 100 m de la entrada. El conjunto de representaciones está dividido en 9 grupos, 7 en la galería principal, un octavo al comienzo de una galería inferior y un noveno en la galería superior, este último distinto y anterior a todos los demás. Los de la galería principal muestran una similitud estilística y cronológica.

39. Altxerriko lehen irudi multzoari hasiera ematen dion zeinua.

39. Primer signo con que se inicia el primer grupo de figuras de Altxerri.




Galeria nagusiaren ezkeraldeko barrunbe txiki batean, galeria angelu zuzenean eskuinalderantz kurbatzen den gunean hain zuzen ere, ageri da aurreneko irudi multzoa. Grabaturiko zeinu bat ageri da lehenik: sakon ziztaturiko lerro bat da, alboetatik beste batzuk jasotzen dituen (39. irud.). Sarrera egiten die ikur honek barrunbeari eta leizeko gainerako irudiei, goiko galeriakoei izan ezik.

Berrogeita hamar bat irudi ageri dira barrunbean ezker eta eskuin, grabaturik. Elkarren gainean daude haietako batzuk. Ezkerretik hasita, ikuslearen ezkeralderantz zuzenduriko bisontea nabarmentzen da bereziki. Sakon grabatu zuten haren atzealde, buztan listua eta hankak, hau da, ilea motzen ageri duten atalak, nabarmenduak. Grabatu ez horren sakona ageri du aurreko hanka bakarrak. Animaliairen gainerako ataletan marra ugari bideratu zituzten, modu egituratuan eta marraren mehetasuna bereziki landuz, bisonteen aurrealdean eta neguan bereziki daramaten ile-adats oparoa modu espresionistan aurkeztu nahi izan ba-

El primer grupo de figuras se encuentra en un pequeño divertículo situado a la izquierda de la galería principal, donde ésta se curva en ángulo recto hacia la derecha. Comienza con un signo grabado consistente en una incisión profunda a la que convergen por ambos lados otras menores (fig. 39). Este signo introduce al divertículo y al resto de grafismos de la cueva, salvo las de la galería superior.

En el divertículo, tanto a la izquierda como a la derecha, hay casi medio centenar de figuras grabadas, en parte superpuestas. Comenzando por la izquierda, destaca al comienzo un bisonte dirigido hacia la izquierda del espectador, cuya parte posterior está profundamente grabada, con la cola desfleada y dos patas, es decir, las zonas donde el pelo es más corto. La única pata anterior lleva un grabado menos profundo. En el resto del animal se ha realizado un rayado abundante, estructurado, mucho más fino, que parece representar, en forma expresionista la masa de pelo que los bisontes llevan en su parte anterior, en especial en librea de in-



40. Elur-oreina eta azeria, Altzerri.

40. Reno con zorro de Altzerri.

lute bezala. Begi bat grabatu zuten aurrealdean eta adar luze bat erpintzen da haren gaineratik, «ile-adatsaren marraduratik» goiti.

Bisonte horren aurrealdearen behealdean, basahuntz bat zuzentzen da ezkerrederantz, burua atzera emana. Sakona da grabatua haren ipurgainean, buztan laburrean, atzeko hanketan eta sabelaren lerroan, eta mehea, axalekoa, gainerako ataletan. Sabelak modelatu-lan sakona ageri du, grabaturik. Animalia horiek gorputz alde horretan duten gune iluna aurkezteko bideratuko zuten.

Zati batean deskribatu berri dugun multzo horren eskuinaldean, elur-orein bikain baten aurrealdea ageri zaigu sakon grabaturik. Bereziki zaindu zuten buruaren aurkezpena. Trazu finez eginiko grabatua nabarmentzen da begiaren eta sudurrealdearen artean. Adajearen aurrealdea ahur itxurakoa da, belarria motza eta muturra biribila. Animalia hauek lepoaren eta bularraren artean ohi duten ile-kalparra ageri du, bestalde. Arretaz zaindu zuten, halaber, hanken aurkezpena, ukaraiak, zurda-multzoak eta apoak zehatz-mehatz azalduz (40. irud.).

Azeri bat irudikatzen duen grabatua ageri da elur-oreinaren lepoan. Sakon grabatu zuten animalia eta osorik ageri da ia-ia. Motz

vierno. En la parte anterior se ha grabado un ojo y sobre él emerge un largo cuerno que sobrepasa el «rayado del pelaje».

Bajo la parte anterior de este bisonte hay una cabra montés dirigida hacia la izquierda, con la cabeza vuelta hacia atrás. El grabado de la grupa, cola corta, patas posteriores y línea ventral es profundo. El resto es muy fino. En el vientre lleva un modelado grabado profundo, que puede representar la zona oscura que estos animales llevan en esa región.

A la derecha del conjunto parcialmente descrito hay un tren delantero de un magnífico reno hecho con grabado profundo. La cabeza ha sido muy cuidada. Entre el ojo y la región nasal lleva un grabado de trazos finos. La parte anterior de la cuerna es palmeada, la oreja corta, el hocico redondeado. Lleva el típico mechón de pelos situado entre cuello y pecho propio de estos animales. Las patas están tratadas con mucho cuidado. Se han indicado las muñecas y los extremos distales con cernejas y pezuñas (fig. 40).

Dentro de la región del cuello del reno aparece el grabado de un zorro. El animal está casi completo y está realizado con un grabado profundo. Las orejas son relativa-



41. Arrain xapala, Altxerri.

41. Pez plano de Altxerri.



42. Saigak, Altxerri.

42. Saigas de Altxerri.

xamarrak dira belarriak, eta, gogoan harturik betiere elur-oreinaren presentzia, Artikoko motakoa izango zen azeri hori, eta ez egun gure artean bizi den azeri gorria.

Panel horren eskuinaldean, zorutik hurbil irteten den arrain itxurako horma-konka batean, bi arrain xapal aurkeztu zituzten. Buruz beheiti orientatu zuten goikoa; osorik dago eta sakon ziztatuz landu zuten grabatu-leerroa. Leunagoak dira ziztada horiek animalia bizkar eta sabelaldetik inguratzen duten hegaletan. Argi eta garbi ageri da isats hegala beste muturrean. Haien artean luzatzen da alboko marra. Arrain xapala da, platuxa, mihi-arrain edo oilarren irudikoa. Platuxen antz handiagoa du Altxerriko aleak (41. irud.).

Aurrekoaren aurrez aurre ageri da, bukatu gabe, beste arrain baten irudia. Bertsua genuke haren sailkapen zoologikoa.

Barrunbean aurrera egin eta ziztada sakonean landuriko bi irudi ageri zaizkigu, goragoko maila batean. Animalia adardun baten burua, lepoa eta enborraren hasiera erakusten dizkigu aurrenekoak. Begia ageri du marraturik eta marra batzuek itxuratzen dute lepoaren behealdea (42. irud.).

mente cortas, lo que sugiere, unido al reno, la especie ártica, no el zorro rojo que vive entre nosotros.

A la derecha de este panel, en un saliente rocoso cerca del suelo, que tiene forma pisciforme, se han representado dos peces planos. El superior, que está orientado verticalmente con la cabeza hacia abajo, está completo y ha sido realizado con un grabado profundo, que se hace más suave en las aletas longitudinales que rodean por dorso y vientre al animal. En el otro extremo aparece claramente la aleta caudal. Entre ambas corre la línea lateral. Se trata de un pez plano como las platijas, lenguados o gallos. El ejemplar de Altxerri se parece más al grupo de las platijas (fig. 41).

Enfrentado con el anterior hay otro contorno inacabado de pez plano. La clasificación zoológica puede ser la misma.

Penetrando aun más en el divertículo y en posición más elevada se encuentran dos figuras hechas con un grabado profundo. La primera representa la cabeza, cuello y comienzo del tronco de un animal cornúpeta. Lleva dibujado el ojo y una serie de trazos oblicuos modelan la parte ventral del cuello (fig. 42).



43. Grabaturiko bisontea, bekoki-sudurren alboko perfil naturalean.

43. Bisonte grabado con perfil frontonasal natural.

Saiga arra genuke irudi horren antzik handiena lukeen animalia (emeek ez dute adarrik). Irudiko adarrak laburrak, mailakatze-gabeak eta erdi bertikalak izaki, irudi horretarako aukerarik gabe uzten dituzte oreinak, bisontea, uroak, ahuntzak eta sarrioak. Würm izotzaldiko adardunen artetik, saiga baizik ez zaigu gelditzen. Bestalde, iritzi horretara garmatza halaber muturraren perfil konbexuak.

Bigarren saiga baten perfil soilago bat ageri da haren eskuinaldean. Bekoki-sudurren alboko perfila eta adarra baizik ez du ageri. Oso zaila genuke irudi hau bere horretan interpretatzen, baina aurrekoarekin batean ageri denez, euskarria eskaintzen digu aurrekoa interpretatzeko, eta alderantziz. Saigarenaren antz handiagoa du bekoki-sudurren alboko perfilak. Adarraren abiagunea ere animalia horrena da. Mota honen hezurak Abauntz (Ulzama, Nafarroa) kobako Madaleine garaiko mailan azaldu ziren (Altuna & Mariezkurrena 1996, 2002).

Bisonte baten irudia eskaintzen digu saigen behealdean ageri den marradura trinkoak; buruz beheiti ageri da, bizkarra ezkeraldera emana.

Irudi horien ondoan, harri beraren «beste aldean», barrunbean barrurago oraindik ere, bisonte oso bat ageri da grabaturik, ezkeralderantz begira. Harriaren ertza baliatu zuten haren bekoki-sudurren alboko perfila itxuratzeko. Burua guztiz lantzeko, muturraren ertza eta sudur-zuloa, begia eta adarra grabatu zituzten (43. irud.).

El animal al que más se parece esta figura es a un macho de saiga (las hembras no tienen cuernos). La forma de los cuernos cortos, no ramificados y subverticales excluye a cérvidos, bisontes, uros, cabras y sarrios. Entre los cornúpetas würmienses no queda más que la saiga. Por otro coincide también en el perfil convexo del hocico.

A su derecha aparece la silueta más simplificada de una segunda saiga. Muestra solamente el perfil frontonasal y el cuerno. Esta figura por sí sola sería de difícil determinación, pero ligada a la anterior, apoya por un lado a aquella en la determinación que hemos hecho y recibe a la vez apoyo de ella. El perfil frontonasal se acerca más al de la saiga. El cuerno arranca aquí también como en este animal. Restos de esta especie aparecieron en el Magdalenense de Abauntz (Ulzama, Navarra) (Altuna y Mariezkurrena 1996, 2002).

El intenso rayado situado bajo los saigas representa un bisonte en posición vertical con la cabeza hacia abajo y el dorso hacia la izquierda.

Junto a estas figuras, en el «anverso» de la misma roca, más dentro aún en el divertículo, hay un bisonte grabado completo, mirando hacia la izquierda. Para el perfil frontonasal se ha aprovechado el borde de la roca. Se ha completado la cabeza con el extremo del hocico y el orificio nasal, el ojo y el cuerno (fig. 43).



Honako irudi hauek daude barrunbe horren eskuinaldeko horman ikusgai:

Basaker bat, eskuinalderantz zuzendua. Adarrek argiro salatzen dutenez, Pirinioetako espeziearen aurrean gaude, eta ez Alpeetakoarenean. Garbi dago, beraz, ongi bereiziak zirela ordurako bi espezie hauek. Jauzi jarreran aurkeztuak dira aurreko hankak.

Basakerrarengandik 20 bat cm-tara, beste arrain bat ageri da bertikalean, gora begira.

Alde berean baina beheaxeago, antropomorfo bat grabatu zuten, bururik gabe, enborra eta beheko gorputz atalak baizik ez. Bularraren eta sabelaren arteko alde batetik atal luzexka bat suma daiteke. Beheregi ageri da besoa izateko eta goregi zakil hipertrofiatuzat hartzeko, muturrak hartzen duen glande edo zakil-moko itxurak horixe iradoki liezagukeen arren. Bizkarraren behealdean barnaturik, zirkulu zentrokidez itxuraturiko disko bat ageri du. Lerro sorta bat irteten da kanpoaldeko zirkulutik.

